

Hostoak



Aiete eta gero...

AIETE 10. URTEURRENA

4/

ENSEÑANZAS
Y RETOS

8/

AIETEKO KONFERENTZIA ETA
ETAREN EKINBIDE ARMATUAREN
BUKAERAREN 10. URTEURRENA

14/

EH BILDU ETA EH BAIREN
ADIERAZPENA

18/

DECLARACIÓN DEL
18 DE OCTUBRE

20/

ETORKIZUNA
DUGU IRABAZTEKO

24/

INTERVENCIÓN DE
COMUNICACIONES

29/

FREE THEM ALL
PRESOEN EGOERA ETA
ESPETXETAKO HELBIDEAK

33/

KARTZELAKOAK, DESERRIKOAK
ERREPRESALIATU POLITIKOEN
BERRI

36/

KRISI KRONIKOA ETA OFENTSIBA
SOZIOSINDIKAL SUBIRANISTA

40/

SISTEMA PUBLIKO
BURUJABERANTZ

43/

AZKEN HILABETEETAKOAK
EKIMENAK, MOBILIZAZIOAK,
ERAGILEAK, INSTITUZIOAK,...

52/

EPAITEGIETAKO BERRI
EPAIKETAK, EBAZPENAK,
AUTOAK...

Argitzailea

SORTU

Erredakzioa

Maialen Arteaga

Oier Narbaiza

Gotzon Elizburu

Egoitza

Zuatzu enpresa parkea.

Easo eraikina 4, behea.

20018 Donostia

Maketazioa eta disenua

Lubaki Grafik Faktory

Argazkiak

Foku

Lege gordailua/Deposito legal

L.G.: D-01469-2021

Jabego lizentzia

CC - BY - SA

Hostoak

Hazitik datorren ernamuinak hostoa dakar lehenik, landarerik txikiena izan edo zuhaitzik handiena izan. Hosto-begitik dator aldaxka, eta aldaxkatik hosto gehiago, eta loreak datoz, eta loreen hostoak. Badira hosto iraunkorrak eta hosto erorkorrak, hostobakarrak eta hosto konposatuak, hosto horzdunak, lobulatuak, palmatuak, arantzadunak, leunak. Kolore askotako hostoak ditugu gurean, anitza da hostajea gure herrian, eta hostopea ere oparoa da eta emankorra. Ikur ere izan daitezke hostoak, eta badira gurean halakoak. Hostoek bizitza irudikatzen dute eta, geure bizitzan bezala, naturan ere aroz aro paisaiaren margoa aldatzen dute hostoek. Bizi berria dakarte udaberrian, eta udazkenean zuhaitzetatik jausten diren orbelek lurrari itzultzen diote bizigaia. Hostoz eta hostoen kolorez osatutako bazterrak, mendiak eta oihanak maite ditugu, eta hostoz osatutako gure herria. Orotariko euskal hostajea.

Margoak osatzeko erabiltzen dira batzuetan hostoak, eta idazteko ere erabil daitezke. Post-it edo ohar-orri gisa erabil genitzake; mezu txikiak idazteko edo margotzeko. Hostoz hosto, orriz orri, orotariko hostajea bildu nahi dugu aldizkari honetan. Gure gaiez arituko gara orriotan, gure herriari dagozkion gaiez eta arazoez, kezkatzen gaituzten gauzez, esateko dugunaz. Ekologiaz eta kulturaz arituko gara, lanaz eta bizi baldintzez, ekonomiaz eta justiziaz, subiranotasunaz eta independentziaz, presoez, itxaropenaz, hizkuntzaz eta hezkuntzaz...

Ez da gure asmoa orriokin inon den zuhaitzik handiena jantzea; iparraldetik edo hegotik, mendebaldetik edo ekitik datozen haizeek gure herrian mugitzen duten hostajea zuhaixka honetan azaltzea baizik.

Enseñanzas y retos

Con motivo del décimo aniversario de la Conferencia Política de Aiete, los días 14, 15 y 16 de octubre se celebraron en Donostia y Baiona las jornadas internacionales “*Aiete 10 años. Enseñanzas y Retos*”. Un evento organizado por el Foro social Permanente y Bake Bidea en colaboración con la Fundación Berghof y de Conciliation Resources, que dio pie a que se analizaran los avances y los desafíos pendientes de la mano de los protagonistas locales e internacionales.

Las jornadas de este décimo aniversario partieron de una previa constatación, la Conferencia de Aiete abrió el camino a un nuevo escenario para la paz y hoy estamos mucho mejor que hace 10 años. Sin embargo, no son pocas las cuestiones que quedaron pendientes y los retos por cumplir, entre otras, el reconocimiento de todas las víctimas, la consecución de una política penitenciaria normalizada y generosa, la construcción de la convivencia democrática,... Las jornadas arrancaron en Aiete el jueves día 14 de octubre, con una ponencia sobre los “*Retos para la paz en la era pos-Covid 19*” a cargo de Martin Griffith, Subsecretario General de Asuntos Humanitarios de la ONU. Ese mismo día, horas más tarde y

en el mismo espacio tuvo lugar una mesa redonda sobre el “*Desarrollo de los procesos de paz en los últimos diez años*” en las que participaron el fundador y director del centro Inter/Mediate dedicado a la mediación y resolución de conflictos y ex-jefe de Gabinete de Tony Blair, Jonathan Powell; el abogado y mediador Brian Currin; la directora de la División de Política y Mediación de la ONU, Teresa Whitfield y el ex Alto Comisionado para la Paz en Colombia Sergio Jaramillo.

El viernes la jornada se trasladó al Kursaal de Donostia donde una mesa redonda sobre “*Enseñanzas del proceso de Paz Vasco*” dio la palabra al mediador Andy Carl, la Doctora en Resolución de Conflictos Veronique Dudouet y el ex-coordinador de Lokarri, y uno de los organizadores de la Conferencia de Aiete, Paul Rios. En el mismo escenario se dio continuidad abordando los “*Retos del proceso de Paz Vasco*” con la participación de Brian Currin, Roberto Manrique, Carmen Galdeano y Agus Hernan. Y, ya por la tarde, otra mesa redonda trató sobre la “*Transformación democrática de conflictos*” en la que tomaron parte Juan Jose Ibarretxe, Quinn Torra, Amalur Álvarez de la plataforma Gure Esku Dago y el presidente de Òmnium Cultural, Jordi Cuixart.

Por su parte, este décimo aniversario de la Conferencia de Aiete tuvo su replica en Ipar Euskal Herria el sábado 16 de octubre en el Auditorium Henri Grenet de Baiona donde diferentes personalidades vascas e internacionales tomaron la palabra. Abrió la jornada una conferencia sobre las “*Enseñanzas del proceso de paz*” a cargo de Véronique Dudouet (Fundación Berghof) y Jean-Daniel Elichiry (Bakegileak) para seguidamente dar paso a una mesa redonda con los actores políticos locales, entre ellos, Jean-Jacques Lasserre (Presidente del Conseil départemental des Pyrénées-Atlantiques), Jean-René Etchegaray (Presidente de la Mancomunidad vasca), Frédérique Espagnac (senadora y consejera regional-PS), Max Brisson (senador y consejero departamentl-LR), Vincent Bru (diputado francés-Modem), Alain Iriart (alcalde de Hiriburu y consejero delegado de la Mancomunidad-EH Bai) y Alice Leiciagueçahar (ex-consejera regional de los verdes-EELV).





Izquierda. (De izq. a drch.)
Brian Currin, Roberto
Manrique, Begoña
Galdeano y Agus Hernán.

Abajo. (De izq. a drch.)
Juan José Ibarretxe, Amalur
Álvarez, Jordi Cuixart y
detrás, Quim Torra.



En el posterior panel *“Aietetik 10 urtera egin dena eta etorkizuneko erronkak”* el protagonismo corrió a cargo de Caroline Guibet Lafaye (Universidad Pau), Anaiz Funosas (Bake Bidea) y Agus Hernan (Foro Social). Luego vendría el momento de analizar el proceso de paz bajo el epígrafe *“una apuesta posible?”* intervendrían Brandon Hamber (John Hume Institute), Carlos Beristain (Comisionado de la verdad en Colombia) y Jean-Pierre Massias (Université des Pays de l'Adour). Finalmente, Brian Currin cerró la jornada con una conferencia sobre *“Los retos y desafíos para Euskal Herria”*.

Además de estas jornadas internacionales, a la conmemoración de los 10 años de la Conferencia de Aiete se sumaron innumerables medios de comunicación cubriendo el ani-

versario con profusión de medios, desplegando programas y ediciones especiales, e incluso la mayoría de los partidos políticos acabarían realizando sus propios actos y lecturas particulares, incluso los que no se sintieron aludidos hace una década.

Sin lugar a dudas, la efeméride no pasó desapercibida y acabó despertando mucho más interés que aquella conferencia de hace 10 años. No en vano, en estos 10 años se han sucedido acontecimientos decisivos como el desarme y la desaparición de ETA y en la memoria colectiva queda la evidencia que una de las partes cumplió con todos sus compromisos y que los estados, principalmente el estado español, no han cumplido prácticamente ninguno de los requerimientos de los facilitadores y mediadores internacionales.

Diez años después, debían volver a abordarse cuestiones claves relativas a cualquier proceso de paz como son la garantía de no repetición; el tratamiento y la consideración a todas las víctimas; la memoria inclusiva y la convivencia democrática. Y, a grandes rasgos, estos fueron los grandes temas de las Jornadas Internacionales organizadas en Donostia y en Baiona para, diez años después del cese de la actividad armada por parte de ETA, extraer enseñanzas de aquel proceso y señalar los retos a implementar en un futuro donde la resolución de la cuestión de los presos y refugiados es la más acuciante.



De izquierda a derecha. El Lehendakari Juan José Ibarretxe y los miembros de Foro Social Agus Hernan y Nekane Altzelai, y Anaiz Funosas.

DEPOSITO BETE ELKARTASUN



Sei botilaz osatutako
ardo ekologiko kaxa

592 **60€**
km

Egin zure eskaria!

Araba
628405243

Bizkaia
690194803

Gipuzkoa
675013317

Nafarroa
646028884



Aieteko Konferentzia eta ETArekin ekinbide armatuaren bukaeraren 10. urteurrena



Ezkerretik eskuinera

Jonathan Powell, Gerry Adams, Bertie Ahern,
Kofi Annan, Gro Harlem eta Pierre Joxe



Hamar urte pasatu dira Aieteko Konferentziatik eta ETAk bere ekinbide armatuaren bukaera iragarri zuenetik. Garaian hartutako norabideak euskal jendartean eta ezker abertzalean izan duen eragin sakona ukaezina da.

Aieteko adierazpenak konponbide prozesua egituratzeko nazioartearen babesa lukeen bide orri bat eskaini zuen. ETaren erabakiak, Erakundeak ondoren hartu zuen bi-deari hasiera emateaz batera, ezker abertzalearen estrategia aldaketari funtsezko bultzada eman zion. Estatuaren erantzuna positiboa izan ez bada ere, Euskal Herrian garai politiko berri bat ireki zen.

Konfrontazio armatua bukatutzat emateko erabaki historikoa ezker abertzalearentzat testuinguru zailean gertatu zen. Ilegalizazioak eragindako nekeak eta higadura politikoak ahuldu gintuzten, eta estatuaren oldarraldiak zaildu egin du hamar urte iraun duen trantsizioa.

KOKAPEN LABURRA

Aieteko Konferentziak eta ETaren erabakiak, aurretik ezker abertzalean egindako eztabaida estrategikoarekin batera, Euskal Herrian ziklo politiko berri bat irekitzeko abiapuntua jarri zuten.

Epe motzean konponbide prozesu bat alde biko akordio batetik abiatzeko aukerarik ez zela izango hausnartu eta gero, ezker abertzaleak inizatiba hartu zuen konfrontazio armatua behin betiko gainditzeko. Bestela, konfrontazio ziklo luze batean sartzeko arriskua zegoen eta horrek ondorio kaltegarriak izango zituzkeen Euskal Herriarentzat eta nazio askapen prozesuarentzat berarentzat ere.

Aieteko Konferentzia ahalegin horren emaitza izan zen. Bertan konfrontazio armatuaren zikloa modu ordenatuan ixteko eta gatazka politikoari konponbide demokratikoa emateko zentzuzko proposamena biltzen zen. Nazioarteko komunitatearen eta euskal jendartearen gehiengoaren babesa zuen, gainera.

Frantziar eta espainiar Estatuak, baina, uko egin zioten konponbi-deari. Ezkerreko independentismoa suntsituko zutela sinistuta, ziklo berria irekitzeko ahaleginari erasotzen hasi ziren. Erabaki horrek ezinezko egin zuen Aieteko bide-orriaren garapen osoa eta asko zaildu zuen konfrontazio armatuaren zikloa ixteko prozesua bera ere.

Estatuak soilik ez, euskal alderdi politiko nagusiek ere estrategia aldaketaren egitasmoa eta Aieteren bide-orria kamustu nahi izan zuten. Ziklo berriak irekiko zituen aukeren beldur, ezkerreko independentis-



Argazkia Foro sozial iraunkorraren aurkezpena Aieten, eragileekin ateratako ondorioak aurkeztu. Irudian Brian Currin, Andoni Ortuzar eta Arnaldo Otegi.

moa higitzea bilatu dute hamar urteotan.

Edonola ere, zailtasun guztien gainetik, hamar urte geroago Euskal Herrian agertoki berri bat ireki dugula aldarrikatu dezakegu. Laburrean, honako ondorio nagusi hauek nabarmendu daitezke:

- ETaren zikloa modu ordenatuan itxi da eta Estatuaren asmoa indargabetu dugu.
- Euskal Herriko agertoki politikoan sakoneko aldaketak gertatu dira. Espainiaren menpeko indar politikoak ahuldu dira; Nafarroa Garaian eta Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoan sakoneko aldaketak ematen ari dira; espainiar Estatuaren izaera ez-demokratikoa gero eta nabarmenagoa da...
- Ezkerreko independentismoa indartu da eta gero eta babes eta eraginkortasun handiagoa

du. Gero eta aukera zilegi eta egingarriago bezala agertzen da jendartearen.

- Prozesu honetan zehar egindakoak sektore zabalekin konektatu du, nazioarteko komunitate-tik hasi eta Ipar Euskal Herriko eragile politiko eta sozialetaraino. Horrek gure herriaren posizioa indartu du.

Zentzu horretan, bide zaila baina era berean arrakastatsua izan dela uste dugu, nazio askapen prozesuan aurreratzen jarraitzeko aukera parez pare irekita baitugu.

HAMAR URTE GEROAGO, AIETEKO ADIERAZPENAREN GAURKOTASUNA

Duela hamar urteko erabakiek ondorio politiko sakonak utzi badiutze ere, argi dago ez zela Aieteko bide-orria garatzerik izan. Euskal preso, iheslari eta deportatu poli-

tikoen auzia eta gatazka politikoa bera konpontzeke daude oraindik.

Dena den, urteotan egindako lana ez da alferrik izan eta Aieteko Adierazpenean agertzen ziren gakoek gaurkotasun eta zentralitate politiko osoa dute. Are gehiago; orduan ez bezala, alde anitzeko harreman eta elkarriketa bideak irekiak daude egun. Hori horrela izan da, batetik, oztopo guztien aurrean ezkerreko independentismoak ez duelako etsi eta aukerak irekitzeko lanean jarraitu duelako. Eta, bestetik, hamarkada honetan gure posizioa indartu delako, eragiteko gaitasuna areagotuz.

Oso testuinguru berezian gaude, beraz, duela hamar urte ezinezko izan zen hori posible egiteko. Tentsio horrekin jokatu beharra dago, baina aukera lokazteko eta are ezintzeko ahalegin indartsuak egongo direla ahaztu gabe.

HAMARGARREN URTEURRENAREN AURREAN, BI JARRERA

Hamar urteotan gertatu bezala, urteurren honen harira bi jarrerak tal-ka egingo zutela aurreikus zitekeen. Batzuk, EAJk eta Eusko Jaurlaritzak nagusiki, ezkerreko independentismoa higitzeko baliatu nahi zuten eta plan politiko eta mediatiko oso bat zuten horretarako. Funtsean, Aieteko Adierazpenari garrantzia kendu nahi zioten, urteurren honetan konponbidearen aldeko aldarria baino ETaren eta, oro har, ezker abertzalearen ibilbidea gaitzesten duen kontakizuna nagusitu zedin.

Horren aurrean oso bestelakoa izan da ezkerreko independentismoaren jarrera. Une politikoaren garrantziaz jabeturik, duela hamar urte gertatutakoari balioa ematearekin batera, iniziatiba politikoa hartu du sortu diren aukerak elikatu eta azkartzeko. Ezkerreko independentismoak bere jarrera zintzo eta eraikitzailea, bere ausardia eta konpromisoa erakutsi ditu berriz ere.

Jarrera horrek, gainera, bat egiten du sektore zabalen ikuspegiarekin, nazioarteko pertsonalitateen diskurtsoan, Ipar Euskal Herriko eragileen posizioan edota herritar askok adierazi duten sentimenduan ikusi izan denez. Areago esan daiteke; espainiar eta frantziar Estatuetan gero eta gehiago entzuten da ezkerreko independentismoaren iritzia eta gero eta zailagoa egiten ari zaie errelato bakarra ezartzea.

FORO SOZIALAK ANTOLATURIKO JARDUNALDIAK

Foro Sozialak antolaturiko jardunaldiek Aieteko Konferentziarekin ireki zen prozesuaren irakurketa egin nahi zuten, irakaspenak atera eta aurrera begira dauden erronkak identifikatzeko. Horretarako, nazioarteko pertsonalitateak gurera etorri dira berriro, Aieteko Adierazpenaren garrantzia nabarmenduz eta jardunaldiei dimentsioa emanez. Oso kontakizun indartsua egin dute, gainera, ezker indepen-

dentistak eta Estatuak izan zuten jarreraren inguruan. Horrek erakusten du ezkerreko independentismoak sinesgarritasun eta aitortza handia lortu duela urteotan.

Jardunaldi horien baitan, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoari begira Baionan egin zen saioa baliagarria izan zen orain arteko adostasuna sendotzeko. Herri gisako agendan sakontzeak -presoen gaia konpontzeak duen lehentasuna edota euskararen egoera aipatu dira- eta frantziar Estatu horretarako oztopo gisa identifikatzeak aukera berriak irekitzen ditu aurrera begira.

EGINDAKO HIRU AGERRALDIAK

Hamar urte hauetan estatuak eta hainbat euskal eragile politikok estrategia aldaketaren egitasmoa eta Aieteren bide orria kamustu nahi izan dute. Ziklo berriak ekar zezakeenaren beldur ororen buru, ezkerreko independentismoa higitzea bilatu dute. Logika honi erantzuten diote hamargarren urteurren honetan bai PNVk zein PSEk eta Espainiako zenbait indarrek antolatu dituzten ekimen politiko eta mediatikoek. Ekimen hauek, ezkerreko independentismoa ahultzeaz gainera, Estatu espainolean konponbiderako ireki diren aukera berriengan eragin nahi izan dute.

Testuinguru oso honetan kokatu behar dira ezkerreko independentismoak hamargarren urteurren honen karira hartu dituen iniziatiba politikoak. Gure helburua, bere garaian gertatua oroitzera mugatzea baino gehiago, konponbiderako sortu diren aukera berrietan eragiteko momentu politiko bat eraikitzea izan da, eta forma ezberdinak hartu ditu Hego Euskal Herrian eta Ipar euskal Herrian. Errealitate ezberdinak izanda ere, batean zein bestean bizi dugun unearen garrantziaz jabetu beharrean gaude.

Alde batetik, Frantziako hauteskunde presidentzial eta legeegileen

atarian, egungo blokeoa eragiteko akordio politiko zabala berrosatzea izan da helburua. Bestetik, espainiar Gobernuaren legeegintzaldia- ren erdian gaudelarik, abian diren mugimenduetan positiboki eragiteko erronka dugu, honen aurrean iniziatibaz arituz.

Aieteko Konferentziaren urteurrenean burutu diren nazioarteko konferentziak sustatu/lagundu ditugu, baita hauetan parte hartu ere. Modu honetan, nazioartearen begirada euskal gatazkara ekarri da berriro, hamar urte hauen balantzetik erronka berriak azpimarratzeko. Aieteri eta Aieteko bide orriari zentralitatea ematea lortu da.

URRIAREN 17AN, EH BILDU ETA EH BAIREN ADIERAZPENA

Maddalen Iriartek eta Anita Lopepek, EH Bilduren eta EH Bairen izenean, Aieteko Nazioarteko Konferentziaren inguruan irakurketa bateratua plazaratu zuten Fikoban. Aieteko deklarazioaren garrantzia eta guztion eguneroko bizitzan izan duen eragina azpimarratuz. Aieterekiko konpromisoa berretsi eta zintzilik dauden gaiak mahai gainean ezarri ziren.

URRIAREN 18KO ADIERAZPENA

Arkaitz Rodriguez Sortuko idazkari nagusiak eta Arnaldo Otegi EH Bilduko koordinatzaile nagusiak Urriaren Hemezortziko Adierazpena irakurri zuten Aieten.

Urriaren 18ko Adierazpenarekin ezkerreko independentismoak bere posizioa azaldu zuen euskal jendartearen aurrean, modu berezi eta solemnean. Bertan, gatazkaren konponbide osoarekiko gure konpromiso erabatekoa berretsi eta, horren baitan, zehazki eta nagusiki, Aieteko bide-orriaren 3. atalean sakondu genuen. Adierazpen zintzo eta eraikitzailea izan zen, euskal herritarrei eta biktimei beraiei zuzendua, gatazkaren biktima guztiek merezi duten aitortza eta erreparazioaren bidea egiten jarraitzeko. Adierazpenak oso oihartzun zabala

Oro har, inor gutxik pentsatzen zuen Aieteren urteurrenean ezkerreko independentismoak iniziatiba hartu eta indartuko zenik, ezta Aieteren bide-orria bera indartua aterako zenik ere.

izan du. Azpimarratzekoa da bai euskal jendartean eta bai biktimen artean izan duen harrera ona. Pozgarria da, beraz, minak arindu eta zauriak sendatzen lagundu baldin badu.

Bestelako ondorio politiko batzuk ere izan ditu eta are sakonagoak izan ditzake aurrera begira, ekimenaren helburu ez baziren ere. Oro har, ezkerreko independentismoaren posizioa indartu da, euskal jendartearen aurrean arduraz, konpromisoz eta ausardiaz jokatzeko jarraitzen duelako. Zentzu horretan, urteetan zehar ezkerreko independentismoaren inguruan eraiki nahi izan dituzten hesi politiko eta mentalak erortzen ari dira eta harreman berrietarako aukerak zabaltzen. Bestalde, Estatuen biolentziak eragindako biktimak aitortzeko beharra azaleratu da.

Oso deigarria izan da, Adierazpenak sektore anitzetan izan duen harrera onaren parean, beste batzuek agertu duten jarrera. Espainiako eskuinak, batetik, Espainiako Gobernua erasotzeko baliatu nahi izan du. EAJk eta Eusko Jaurilaritzak, bestetik, beren ezinegona eta haserrea agertu dute ekimenaren aurrean eta kamusten ahalegindu dira lehen unetik. EAJk bere obsesio eta alderdi interesen lubakian murgilduta jarraitzen du, jarraitu ere, ezkerreko independentismoa zubiak eraikitze ahaleginean ari den bitartean.

URRIAREN 20AN, SORTUREN AGERRALDIA EUSKAL HERRIAREKIKO KONPROMISOA BERRESTEKO.

Duela hamar urte ezker independentista Euskal Herriaren norabidea aldatzen ahalegindu zen, etsipena zegoen tokian itxaropena lora zedin. Bidea oztopoz betea egon arren, ahalegin hura bururaino eramanez, herri honekiko duen konpromisoaren erakusle. Hamar urte geroago, euskal jendartearen aurrean gure herriarekiko konpromiso hori berriro nahi izan genuen agerraldi jendetsu batekin. Une erabakigarrian gaude elkarbizitza eraikitze eta herri bezala ditugun erronei erantzuteko. Eta ezkerreko independentismoak ez du hutsik egingo, bere ekarpena egiten jarraituko du interes partikularren gainetik.

EUSKAL ERREPRESALIATU POLITIKOAK ETXERA

Euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen etxeratzea aldarrikatzeko mobilizazioak itxi zuen urteurren honen karira antolatu den ekimen sorta, konponbiderako agendaren baitan gai honek duen lehentasuna agerian utziz. Urriaren 23an Donostian egindako mobilizazio jendetsuak alderdi eta sindikatuen babesa izan zuen. Azpimarragarria da Kataluniako preso politiko ohien eta alderdi politikoen parte hartzea, mobilizazioari dimentsio gehiago ematen lagundu baitzuen.

ONDORIOAK

Ziur aski, eta aipatu bezala, oraindik goizegi da 10. urteurren honen bueltan egindakoek utzi dituzten ondorioak neurtzeko. Hala ere, zenbait ideia azpimarratu daitezke:

- Batzuk Aieteren urteurrena ohar-kabea pasatzea nahi bazuten ere, aurrera egiten jarraitzeko une politiko garrantzitsua sortu dugula esan daiteke. Gainera, Aieteko bide-orriak hartu du erreferentzia gatazkaren konponbide integratzaileko.
- Hein batean, arerio politikoen asmoa indargabetu dugu eta konponbidea elikatzen duten ekimenak gailendu dira bestelako interesen aurrean.
- Ezker Abertzalearen posizioa indartu da. Batetik, nazioarteko pertsonalitate ezberdinek agerian utzi dute duela hamar urte eta ondorengo ibilbidean ezker independentistak egin zuen ekarpena. Bestetik, gaur egun dugun konpromiso zintzoa erakutsi dugu.
- Azkenik, euskal preso, iheslari eta deportatu politikoen auzia konpontzeko beharra mahai gainera-tu da berriro.

Oro har, inor gutxik pentsatzen zuen Aieteren urteurrenean ezkerreko independentismoak iniziatiba hartu eta indartuko zenik, ezta Aieteren bide-orria bera indartua aterako zenik ere. Zentzu horretan oso positiboki baloratu behar da egindakoa, baldintza berriak sortu baititugu aurrera egiten jarraitzeko.

Horrek guztiak gure arerio politikoen urduritasuna eragin du, EAJren jarreraren edota Vocento taldearen editorialetan agerian gelditu denez. Aurrera begira, sektore horien presioa areagotuko dela aurreikus daiteke, ezkerreko independentismoaren hazkundera galgatu eta agertoki berriak irekitzeko aukerak ezindu asmoz.

Preso eta iheslariantzat dohako eskaintza



Iratzar Fundazioak euskal errepresaliatu politikoei eskaintzen die Txalaparta Argitaletxearekin batera argitaratutako lau liburu berrietako bat edo gehiago dohainik eskuratzeko aukera.

Lau liburu hauetako bat edo gehiago dohainik jasotzeko, kupoi hau betetzea aski da. Jaso nahi dituzuen liburuak zehaztu eta Iratzar Fundazioaren helbidera igorri behar duzue horretarako, zuen datuak eta eskaera jasotzera Fundazioaren egoitzara etorriko den senide edo lagunaren izena ipiniz. Hauxe da helbidea:

IRATZAR FUNDAZIOA

Zuatzu poligonoa, Easo eraikina, 4 behea.
20018 DONOSTIA

Preso edo iheslariaren izena:

Espetxea/Erbestea:

Eskaria jasoko duen pertsona:

Liburuak:

- ☐ **ASKATU edo MOZTU**, Euskal hezkuntzagintzaren erronka zahar eta berriak. *Nora Salbotx*
- ☐ **EUSKAL MATXINADA**, Genealogia eta egungo eztabaidak. *Andoni Olariaga*
- ☐ **MAMUARI SO**, Neoliberalismoa versus burujabetza. *Floren Aoiz*
- ☐ **JAN eta JABE**, Elikaduraren bidez Herria eraikitzen. *Tasio Erkizia*

EH Bildu eta EH Bairen adierazpena

Maddalen Iriartek eta Anita Lopepek, EH Bilduren eta EH Bairen izenean, irakurketa bateratua plazaratu zuten Aieteko Nazioarteko Konferentziaren inguruan.



Aieteko deklarazioaren garrantzia eta izan duen eragina guztion eguneroko bizitzan. Duela 10 urte jada, 2011ko urriaren 17an ale-gia, Kofi Annan, Bertie Ahern, Gerry Adams, Jonathan Powell, Brian Currin, Gro Harlem Brundtland eta Pierre Joxe bezalako nazioarteko ordezkarien eta Euskal Herriko ia indar politiko eta sindikal guztien parte hartzearekin egin zen Aieteko Nazioarteko Konferentzia. Gure herriaren historian mugarri bat izan dena, bakeari ekiteko bideorri oso bat zehaztu zuena. Europako azken konfrontazio armatuaren bukaerarako aukera ikusi zuten nazioarteko ordezkari eta eragileek eta haien kolaborazioa eskaini nahi izan zuten. Haiek zioten bezala, bertako hiritar, eragile, instituzio guztien parte hartzea ezinbestekoa zen, bai eta nazioarteko Komunitatearen laguntza ere bai. Haien esperientzia dela eta guztion oniritziarekin honako proposamena egin zuten:



Ezkerretik eskuinera. Garikoitz Mujika, Anita Lopepe, Madalen Iriarte eta Xabier Larralde.

1. ETari eskatzea bere ekinbide armatuari bukaera eman ziezaion eta Espainiar zein Frantziar Gobernuarekin elkarriketak eskatzea gatazkaren ondorioez soilik aritzeko.
2. ETak horrelako deklarazioa eginez gero, Espainiar eta Frantziako Gobernuak eskatzea deklarazioa ontzat hartzea eta elkarriketei ekitea.
3. Eskatzea urratsak egitea bizikidetzan aurreratzeko, biktima guztiak aitortzea eta erreparatzea, eragindako mina aitortzea eta zauri pertsonal zein kolektiboak sendatzeko laguntzea.
4. Eskatzea eragile ez-biolentoak eta ordezkari politikoak bildu daitezkeen eta auzi politikoez eztabaidatu dezaten eta hiritarrei kontsulta diezaiete, horrela gatazkari gabeko fase baterako lagungarria izango delakoan.
5. Haien prestutasuna adierazi zuten gomendio hauen jarraipen batzorde bat sortzeko.

ONDORENGO IBILBIDEA

Agerian denez, ETak bete ditu bere konpromisoak, guzti guztiak. Horri armagabetze eta erakunde gisa desagertzea gehitu behar zaiolarik. Estatuaren erantzuna, berriz, hasiera hasieratik borondate politikorik gabea izan da, bide hori itxiz eta inongo elkarriketa errefusatu. Gerora, Ipar Euskal Herriatik eraman den indar metaketari esker Frantziar Gobernuaren jokabidea doi bat ezberdina izan bada ere. Gogoratzekoa da zentzu horretan Espainiar Gobernuak nazioarteko ordezkari horiek, jarraipen batzordeko kideak erasotzera ailegatu zela.

Ordezkari politiko, instituzional eta hiritarren parte hartzeari dagokionez, hamar urte hauetan oso bide ezberdinak egin dira Ipar Euskal Herrian zein Hego Euskal Herrian. Errealitateak eta izandako ibilbide historikoa ezberdinak izatearen eraginez gertatu da neurri handi batean.

Ipar Euskal Herrian oso bide eman-korra egin da. Konplexua dudarik gabe, eztabaida luzeak egin eta guztion partetik eskuzabaltasunez aritzea eskatu duena. Baina oztopo eta zailtasunen gainetik ibilbide garrantzitsua egin da, 2014ko Baionako Adierazpena bezalako akordioak erdietsiz, instituzioak eta gizarte zibila batera arituz eta Frantziar Gobernu mugiarazteko bideak irekiz. Egun horrela da ere, egiteke diren urratsen arrastoan ahaleginak egiten. Bereziki, ibilbide honetan zehar eta egun ere bistaratu izan diren blokeoen gainetik, presoak etxera itzultzeko bidea bultzatzen.

Halaber, elkarriketa eta adostasun horiek bestelako gai politikoei heltzeko balio izan dute. Hala nola Ipar Euskal Herriaren erakundetxe prozesuan 2017an Euskal Hirigune Elkargoaren sorrerarekin hiru lurraldeen aitortzan lehen urratsak egiteko. Jarraipena izan beharko lu-



ketena, gure ikuspuntutik hurrengo urratsa Estatus Bereziko Lurralde Kolektibitatea sortzea litzatekeelarik Ipar Euskal Herriaren ezagutza politikoa urrats sendoagoa egin ahal izateko.

Hego Euskal Herrian, berriz, hasieratik gauzak oso motel joan dira, kontraesan eta are konfrontazio handiak izan dira, eta zailtasun nabarmenak izan ditugu guztiok arraun egiteko norabide berean. Elkarbizitza, bakea eta gatazka politikoa gainditzearen norabidean hain zuzen. Hainbat momentu eta esparrutan nagusitu dira alderdikeriak, interes elektoralak, faktura politikoak pasatzeko asmoak...

Ordezkaritza instituzionalak ere, guztion elkargune gisa aritu beharrean alderdikeria horretaz blai aritu dira, bidea erraztu beharrean gauzak korapilatzen. Esanguratsua eta azpimarratzekoa da zentzu horretan Urkullu jaunak jokaturakoa papera. Aieteko deklarazioaren konpromisoa ihes egin, nazioarteko ikuskatzaileen gomendioei muzin egin, eta Espainiar Gobernuaren aurrean bere alderdiarentzat eroso ziratekeen tokia bilatu nahian ibili baita.

BIDEGURUTZE BAT ARNAGA ETA BERTIZ

Aietetik Arnagako deklaraziora 7 urte igaro ziren. Zazpi urte konplexu eta zailak, non gizarte zibilaren parte hartzea ezinbestekoa izan zen konponbiderako ibilbidean hainbat urrats egiteko. Ikus-garriena eta garrantzitsuenetariko bat armagabetze prozesua bera. Sinesgaitza dirudi oraindik ere, baina Espainiar Gobernuak, Frantziarraren laguntzaz, uko egin zion armagabetze prozesu antolatutako bat egiteari. Uko egiteaz ez ezik, ekiditen saiatu zen bortitz eta temati. Bereziki Ipar Euskal Herriko Gizarte Zibilaren irudimenak lortu zuen bi estatuen presio hori gainditzea eta armagabetzea burutzea mundu guztiaren aurrean. Funtsezko urrats horrek, baldintza berriak ireki zituen gatazkaren ondorioen konponbidean aitzinamendu berriak egin ahal izateko.

Aurrekari horiekin ailegatu ginen Arnagako deklarazioak eta Bertizen Urkulluk eta Barkos lehendakariak egindako ekitaldiak irudikatzen duten bidegurutzera.

Arnagan, nazioarteko ikuskatzailerik baiezatu zuten ETak egindako eskaera guztiei erantzun zuela. Konpromisoak betetzeaz gain, armagabetzea eta disoluzioaren urratsak baikorki baloratu zituzten. Historikotzat jo zuten eguna. Berriz, Espainiar Gobernuak elkarriketari uko egin izana azpimarratu zuten. Era berean, egin gabe zeuden urratsak gogoratu zituzten: preso eta iheslarien aferari irtenbidea ematea eta bizikidetzarako bideari ekitea, eta elkarriketa politikoei ekitea. ETaren desegiteak, dudarik gabe, hamarkadetako gatazkari bukaera emateko aro berri bat ireki zuen Euskal Herrian.

Bertiz, ordea, iraganari begira egindako ekitaldi instituzionala izan zen. Ekimen itxia, uzkurtuta, etorkizunari beldurra erakutsi zuena, protagonismo politiko bati eustea bilatzen zuena eskubide eta konponbidearen gainetik. Euskal Herriaren historian mugarri izan den egun bati jarritako kontrapuntu tristeza izan zen Hego Euskal Herriko bi lehendakariak posizio horretan ikustea.

Geroztik Hego Euskal Herriko bi Gobernuen artean ere jarrerak eta

ibilbideak ezberdintzen joan dira. Batzuentzat harrigarria bada ere, geroztik izan diren Nafarroako bi Gobernuek, zailtasunak eta kontraesanak gora behera, jarrera irekiagoa izan dute Ajuria-Eneakoa baino. Ezin esan halere gaiak behar duen disposizio eta abiadurarekin aritu denik. Une batzuetan baita etsigarria izan baita gauzak korapilatzeko eta atzeratzeko joera.

Halere, testuinguruak lagunduta ziur-aski, presoan aferari dagokionean azkenean gauzak mugitzen hasi eta urrats batzuk egin dira. Esanguratsuen, zalantzarik gabe, sakabanaketari bukaera emateko egiten ari direnak. Burutu gabeko prozesua da oraindik, baina dilaziorik gabe salbuespenezko espetxe-politika alde batera utzi eta presoan etxeratzearen faseari bidea ireki beharko liokeena. Horretarako Euskal Herriko alderdi, eragile sozial eta instituzionalen parte hartzea eta adostasuna behar beharrezkoa da.

Zoritxarrez, ezin esan gaur egun nagusitzen ari den joera hori denik. Aitzitik, Gasteiz eta Iruñeko Gobernuen kudeaketan dauden alderdiek bestelako jokabidea erakutsi dute. Oraingoan, iraganari buruzko irakurketa arerio politikoa erasotzeko eta abantailazko posizio etiko eta politikoa lortzeko baliatu nahi dutela irudi du. Nola ulertu bestenaz azkenaldion eta, bereziki, “Elkarbizitzarako planen” izenean egiten ari diren deklarazioak eta mugatu nahi diren askatasunak? Lehen “ETAren munduaz” hitz egiteak ondorio larriak ekarri zituen ehunaka herritarrentzat, bai eta eskubide zibil eta politikoen murrizketak milaka eta milaka herritarrentzat. Orain batzuk “ETAren unibertsoaz” mintzo dira eta iraganari buruzko autokritika eskatzen dioten sektore politiko jakin bati soilik, horrela abantaila politikoa bereganatu nahian dabilta datorren ziklo elektoralari begira. Ez dakigu kontzienteak ote diren halakoek eragin dezaketen minaz, arinkeria

horrek erakar ditzakeen eraso eta eskubideen murrizketak... Edozein kasutan mesede gutxi egiten zaio elkarbizitzari, herri honen memoria historikoari, eta, oro har, guztion artean eraiki beharreko bake oso eta iraunkorrari. Norberaren interesen gainetik etorkizunari begiratzeko unea da, hurrengo belaunaldietan pentsatzeko unea da, gizarte osoarengan pentsatzeko unea.

Halaber, Frantziar Estatuak egiteke duen bidez ohartarazi nahi dugu. Orain arte urrats garrantzitsuak egin badira ere, bereziki azpimarratu nahi dugu euskal presoan kaleratzea oztopatzeko fiskaltza antiterrorista izaten ari den jarrera bortitza. Bake prozesu bat eta bizi osorako zigorra ez direlako inondik inora bateragarriak. Orain arte prozesuak izan dituen une kritikoetan egin izan den bezala, eragile eta herritar guztiei dei bat luzatzen diegu euskal presoan auziari atera-bidea emateko indarrak mobilizatze.

EH Bildun eta EH Bain kultura eta tradizio politiko ezberdinetatik datozen alderdiak eta militanteak gauden, eta ez dugu konpartitzen herri honen azken hamarkada luzeetako historiaren irakurketa. Baina hori ez da oztopo bakoitzaren barne hausnarketa eta autokritikarekin batera oinarri batzuk finkatu, elkarrekin aritu eta etorkizunari itxaropentsu begiratzeko. Oinarriak argiak dira: eskubide guztiak guztiontzat eta bide baketsu eta demokratikoak.

Horixe da egoera eta, gaur ere, berriro ere, konpromisoak hartu eta norberaren interes partikularren gainetik herri honen mesedean aritzeko tenorea dugu. Gauzak horrela EH Bilduk eta EH Baik Aieten finkatutako bide-orriarekiko gure atxikimendua berretsi eta honako deklarazioa egin nahi dugu:

- EH Bilduk eta EH Baik jarraituko dugu biktima guztien aitortza eta erreparazioa defendatzen eta horretarako konpromisoak

hartzen. Gure lehentasunetarikoa bat da.

- EH Bilduk eta EH Baik lanean jarraituko dugu espetxe-politikarekin bukatu eta euskal preso, iheslari eta deportatu politiko guztiak etxera ekartzeko. Bada garaia urrats hauei heltzeko eta, horretarako, gaia lehia politiko-elektoraletik kanpo utzi behar da. Gu, orain arte egin dugun bezala, prest gaude behar diren urratsak egiteko zentzu horretan. Beti ere gaiari arduraz eta irmotasunez heltzeko bada.
- EH Bilduk eta EH Baik berresten dugu gure konpromisoa iraganari buruzko hausnarketa eta gogoeta konpartitua egiteko. Honetan ere elkarbizitza sendotu eta giza eskubide guztien errespetua izan dadin etorkizuneko oinarria. Gatazkaren gaineko kontakizuna baino, norberak berea eduki baina irakaspenak guztionak izan daitezten. Izan ere guztiok izan baitugu ardura, guztiok egin baititugu akatsak, eta guztiok izan behar baitugu konpromiso irmoa bakea eraikitzeko.
- EH Bilduk eta EH Baik Aieteko adierazpenaren laugarren puntua gure egin eta Euskal Herriaren geroari buruz eragile politikoen arteko elkarbizitza eta akordioak bultzatzeko gure prestasun osoa adierazten dugu. Ildo horretan, adostasun horiek herritarrei kontsultatuz gehiengoaren erabakia onartzea baitzepadakoa da, horrek ahalbidetuko duelako Euskal Herrian egoera demokratikoago bat erdiestea.

Dei egiten diegu gainontzeko indar politiko, ordezkari instituzional, sindikal eta sozial guztiei, Ipar Euskal Herrian egin den bezalaxe, guztion artean konfiantza giroa sortu, behar diren elkarbizitza egin, eta akordioak erdiesteko. Urratsak egiten jarraitu behar dugu. Euskal Herriak merezi du eta. Guk horretarako prestutasun osoa dugu.



Foto: Arnaldo Otegi y Arkaitz Rodríguez

Declaración del 18 de Octubre

Con motivo del décimo aniversario de la Conferencia Internacional de Aiete y el fin de la violencia armada de ETA, la izquierda independentista vasca quiere compartir con el conjunto de la sociedad vasca, española y francesa, así como con la opinión pública internacional, las siguientes reflexiones:

1. Transcurridos diez años desde que ETA anunciase el fin de la violencia, no podemos sino constatar el cumplimiento íntegro de dicho compromiso. El fin de su actividad ha sido total y completo. Además ha procedido de manera satisfactoria, tal y como estipulan los estándares internacionales, a su desarme y posterior desaparición.

Estos procesos son siempre complejos, debemos poner en valor la unanimidad con que ETA tomó sus decisiones, lo que ha evitado a posteriori problemas graves como los que se han producido en otros procesos de similares características.

Aquellos que apostaron de manera decidida, valiente y arriesgada por las vías exclusivamente pacíficas han cosechado un éxito rotundo e incontestable. Demostraron un sólido liderazgo.

En todo caso, el éxito correspondiente, qué duda cabe, al conjunto del pueblo vasco.

2. No había trampa, no se trataba de ningún cálculo táctico. El tiempo transcurrido pone de manifiesto el inequívoco carácter estratégico

de la decisión adoptada. El compromiso con vías exclusivamente pacíficas y democráticas por parte del independentismo de izquierdas respondía y responde a profundas convicciones éticas y políticas. Es una decisión inamovible y para siempre.

La izquierda independentista ha acreditado la sinceridad de su apuesta y el cumplimiento de la palabra dada.

3. Transitar hacia una paz justa y duradera necesita del reconocimiento y reparación de todas, absolutamente todas las víctimas. No nos olvidamos de ninguna de ellas.

Hoy queremos hacer una mención específica a las víctimas causadas por la violencia de ETA. Queremos trasladarles nuestro pesar y dolor por el sufrimiento padecido. Sentimos su dolor, y desde ese sentimiento sincero afirmamos que el mismo nunca debió haberse producido, a nadie puede satisfacer que todo aquello sucediera, ni que se hubiera prolongado tanto en el tiempo. Debíamos haber logrado llegar antes a Aiete.

Desgraciadamente, el pasado no tiene remedio, nada de lo que digamos puede deshacer el daño causado, pero estamos convencidos de que es posible al menos aliviarlo desde el respeto, la consideración y la memoria. Queremos decirles de corazón que sentimos enormemente su sufrimiento y nos comprometemos a tratar de mitigarlo en la

medida de nuestras posibilidades. Siempre nos encontrarán dispuestos a ello.

4. La experiencia internacional nos demuestra, la declaración de Aiete así lo recogía, que es necesario dar una solución a la cuestión de los presos y las presas políticas. Es un reto ineludible para todos, que pasa necesariamente por poner fin a la política penitenciaria de excepción y por darle una solución integral. Queremos reivindicar el papel activo, decidido y decisivo de los presos en la superación de la estrategia armada y su definitivo compromiso con las vías pacíficas y democráticas. Sin ellos y ellas no hubiera sido posible.
5. Nos reafirmamos en el compromiso con la defensa del diálogo, la negociación y el acuerdo como método más eficaz y democrático para dirimir y solucionar las diferencias políticas.

Seguimos teniendo una asignatura pendiente con la resolución de las causas del conflicto. Resulta imperativa la resolución democrática de este problema nacional. Somos un pueblo, una nación, que como tal debe de ser respetada y reconocida. El respeto a nuestra identidad nacional es el primer y necesario paso para construir un futuro diferente en el que las decisiones correspondan a la ciudadanía de nuestro pueblo.

En Donostia, a 18 de octubre

Etorkizuna dugu irabazteko





Argazkiak: Sortuk adierazpen bat irakurri zuen ETArek borroka armatuaren amaieraren hamargarren urteurrenaren harira. 100 bat militante egon ziren bertan.

Gaur herri honekiko konpromisoa berrestera gatoz, uste dugulako une erabakigarri batean gaudela.

1. Duela hamar urte ETak borroka armatuari bukaera eman zion. Ezker independentista Euskal Herriaren norabidea aldatzen ahalegindu zen, etsipena zegoen tokian itxaropena lora zedin. Ausardiaz eta erabakitasunez jardun genuen, etorkizun hobe posible eta beharrezkoa zela iritzita. Ez zen bide erraza izan.

Hamar urte geroago pozez esan dezakegu garai politiko berri bat irekitzen lagundu dugula. Biolentzia adierazpenetako bat ekuaziotik kanpo dago eta gaur egun, zalantza izpirik gabe, Euskal Herriaren egoera duela hamar urtekoa baino hobe da.

2. Momentu erabakigarria da bakea eta elkarbizitzari dago-kienez. Ezker independentistak lanean jarraituko du, orain arte ezinezkoa izan dena posible egingeko. Aieteko Adierazpenaren atal guztiekiko konpromisoan berresten gara. Preso politikoek auziari konponbidea eman behar zaio, biktimen aitortzan urratsak eman behar dira eta gatazkari aterabide

demokratikoa eman behar zaio. Elkarbizitza eraikitzeke ezinbestekoa dela uste dugu. Ez dugu etsiko eta ireki den aukera elikatzen jarraituko dugu, zintotasunez eta ausardiaz, iragan astelehenean Urriaren 18ko Adierazpenarekin egin berri dugunez.

Batzuk errelatoaren batailan daude, gu bakea eta elkarbizitzaren eraikuntzan. Hori delako jendartearen gehiengo zabal batek nahi duena; herri honek ez duelako gutxiago merezi. Arduraz jokatzeko unea da, denok. Guk jarraituko dugu ekarpen eraikitzailearen egiten, herriaren interesak gure interesen gainetik jartzen ahaleginduz, gure bertsiorik onena ematen ahaleginduz.

3. Une erabakigarrian gaude herri honen etorkizunari dagokionez. Nazio zahar hau hainbat erronka erraldoiri aurre egin beharrean dago: erronka globalak eta belaunaldiei dagozkien erronkei, besteak beste, klima-alaketari, zainketen krisiari, gure identitate komunitarioaren garapenari, ekoizpen-sarearen eraldaketari eta abarri. Une historiko honek herri susperraldi handi bat abiatzea

eskatzen digu. Etorkizunerako begirada luzea, erantzukizuna eta eskuzabaltasuna erakusteko garaia da, interes orokorra lehenesteko, alderdi ororen interesen gainetik. Etorkizun hobe batekin engaiatzeko unea da. Betebehar moralak dugu eza-gutu duguna baino herri hobe bat oinordetzan uzteko, bere orainaren eta etorkizunaren jabe dena, bere patua gobernatzeko gai dena. Etorkizuneko belaunaldiei zor diegu.

Geuk ondo egindakoez eta geure akatsez arduratzen gara. Apaltasunetik, gure indar guztiekin, berdinaren arteko herri aske bat eraikitzeke ekarpena egingo dugu, "pertsona guztientzat eskubide guztiak" printzipio gidariaren baitan.

**Donostian,
2021eko urriaren 20an**



Intervención de comunicaciones

Las limitaciones a las comunicaciones vienen recogidas en la Ley Orgánica General Penitenciaria (LOGP) que contempla que se hagan de manera que se respete al máximo la intimidad, pero permite que sean restringidas únicamente por razones de seguridad, de interés de tratamiento y del buen orden del Establecimiento.

El derecho al secreto de las comunicaciones no tiene un carácter absoluto y la ley permite la intervención de las comunicaciones a las personas encarceladas en atención a los tres razonamientos mencionados. Algo que por otro lado, es un requisito exigido por Convenio Europeo de Derechos Humanos, al requerir que cualquier injerencia o limitación al derecho a las comunicaciones privadas esté previsto por la Ley.

Por su parte, la misma ley también contempla que las comunicaciones sean “suspendidas o intervenidas motivadamente por el Director del Establecimiento, dando cuenta a la autoridad judicial competente”. La importancia de esta motivación del acuerdo obedece a que la limitación del ámbito jurídico de una persona, aunque se encuentre privada de libertad, no se puede restringir de forma innecesaria, inadecuada o excesiva. Por tanto la motivación de

tal medida debe ser necesariamente previa a la adopción de la misma y debe responder a dos cuestiones: primera, precisar cuál de las tres finalidades legalmente previstas –seguridad, interés de tratamiento y buen orden del Establecimiento– es la perseguida con la adopción de la medida y, segunda, se obliga a mencionar la situación concreta del preso y las circunstancias que permitirían concluir que la adopción de la intervención de comunicaciones es adecuada para lograr el fin perseguido.


Los requisitos que deben cumplir los acuerdos de intervención de las comunicaciones son por tanto, el estar motivados por el Director del Centro Penitenciario y la doble notificación de la adopción de la medida, de un lado al juez y de otro al propio preso. A estos requisitos se le añade la necesidad de establecer un límite temporal a la intervención. ¿Por qué? Por que una medida

ESTADO ESPAÑOL

Tiene una vigencia temporal de seis meses. Sin embargo, la inmensa mayoría de los presos políticos vascos han llegado a acabar condenas de 20, 25 y 30 años con todo el periodo de encarcelamiento con las comunicaciones intervenidas.

restrictiva de derechos más allá del tiempo estrictamente necesario para la consecución de los fines que la dicen justificar lesiona efectiva y gravemente el derecho del preso, en este caso el derecho al secreto de las comunicaciones. De ahí que la propia LOGP y el Reglamento Penitenciario, en el articulado que trata sobre la cuestión, recogen la implícita exigencia del levantamiento de la intervención de comunicaciones en el momento en que deje de ser necesaria por cesación o reducción de los motivos que la justificaron.

La extralimitación y el uso y abuso de la intervención de comunicaciones ya la intuyó el Tribunal Europeo Derechos Humanos (TEDH) en dos Sentencias de 1996 relativas al tema. El TEDH vino a exigir que al adoptarse la intervención de las comunicaciones se determine el período temporal de vigencia de la misma. Además, estima que dicha





La intervención de comunicaciones ha venido siendo una medida absolutamente generalizada que no responde al análisis individualizado de cada preso.

Esta falta de coherencia pone de manifiesto la anacrónica situación que viven los presos políticos vascos y hasta donde siguen siendo todavía víctimas de las inercias adoptadas en el pasado y tan difíciles de corregir.

intervención puede hacerse depender de la desaparición de la circunstancia que justificó la intervención ya que, desaparecida ésta, se pone de manifiesto que la medida habría dejado de ser necesaria. En el Estado español los acuerdos de intervención de comunicaciones tiene una vigencia temporal de seis meses y una vez expirado el plazo el Centro Penitenciario se ve en la tesitura de renovar o no la intervención por otro periodo de seis meses. Sin embargo, viene sucediendo que la inmensa mayoría de los presos políticos vascos han llegado a acabar condenas de 20, 25 y 30 años con todo el periodo de encarcelamiento con las comunicaciones intervenidas.

La decisión de intervención de comunicaciones se produce por tanto con una cadencia de 6 meses y la iniciativa recae en manos de la Dirección de cada cárcel. No se requieren informes previos ni se celebra una Junta de Tratamiento ni

nada por el estilo. Simplemente, la cárcel lleva la cuenta, sabe cuándo fue la anterior notificación y el acuerdo de intervención de comunicaciones, lo apuntan para que no se les pase la fecha y, antes de que pasen los 6 meses, le “renuevan” la intervención, con un nuevo acuerdo, del director (que es quien lo firma aunque normalmente el seguimiento de estas cosas lo haga el grupo de control).

La intervención de comunicaciones ha venido siendo una medida absolutamente generalizada que no responde al análisis individualizado de cada preso, y de hecho nunca se introducen en el acuerdo de intervención razones concretas o personales, datos concretos, ... sino un copia y pega de tópicos, sin motivaciones reales ni justificadas que hacen referencia genérica a su pertenencia a banda armada o la gravedad de los delitos: *capacidad criminal y peligrosidad del interno patente en los delitos*

cometidos; integración en un grupo de delincuencia organizada vinculada al terrorismo; Seguir las directrices de la organización (incumplimiento de las normas regimentales, protestas, encierros, etc).

La base para la intervención, como ya se ha dicho, está en “razones de seguridad” y lo previsto en el art. 51 LOGP. La intervención no viene obligada legalmente ni por el hecho de ser condenados por terrorismo ni por su inclusión en el FIES, ... La intervención se apoya en una disposición legal que lo permite, pero que no es obligada.

En algunos de los acuerdos más recientes de intervención de comunicaciones se puede advertir el desatino: la referencia a la banda, a la posibilidad de que se transmitan datos que resulten perjudiciales o peligrosos o se coordinen motines

o protestas, ... Es decir, la intervención de comunicaciones sirve a objetivos que la SGIP sabe que son, a día de hoy, simplemente inexistentes. Entre los últimos acuerdos de algunos directores, destaca con luz propia el de Iruñea, que hace alusión a la *“comisión de delitos graves en el seno de la organización terrorista ETA, no habiendo mostrado al día de la fecha repudio respecto a la actividad desarrollada por la citada banda terrorista, así como tampoco ha mostrado rechazo o arrepentimiento por los actos cometidos”*. incluso viene a decir que existe EPPK, el colectivo de presos, que organizan protestas y realizan *“exigencias en el ámbito penitenciario, las cuales pudieran incidir en el mantenimiento del buen orden interior del Establecimiento y la seguridad penitenciaria”*. Es decir, se acuerda la intervención por motivos ajenos a los especificado por la ley y mostrando exigencias que

no vienen al caso (condicionada al repudio) y derivando los motivos de peligrosidad a otros terrenos de especulación gratuita (EPPK).

Se da la paradoja que un día se adopta la decisión, por parte de la SGIP, de progresión a segundo grado y traslado, y a los días, tras trasladar a esta misma persona y llegar en 2º grado al nuevo Centro Penitenciario se le aplica un acuerdo de intervención de comunicaciones que se apoya precisamente en los argumentos contrarios a los que habían motivado el traslado y/o progresión de grado.

Esta falta de coherencia pone de manifiesto la anacrónica situación que viven los presos políticos vascos y hasta donde siguen siendo todavía víctimas de las inercias adoptadas en el pasado y tan difíciles de corregir. Todavía hoy perduran en los

Fotos. Cárcel de Zaballa



ESTADO ESPAÑOL

Se ha procedido a una involución por parte de las direcciones de algunas cárceles que continúan remitiendo a los presos notificaciones con argumentos del pasado y que muestran signos inequívocos de una voluntad de seguir manteniendo la intervención de las comunicaciones.

Centros penitenciarios las antiguas directrices que dieron lugar a que a los presos de ETA sistemáticamente, al llegar a la cárcel, se les acordara la intervención de las comunicaciones. La situación ha cambiado y se debe tener en cuenta que la LOGP y el Reglamento Penitenciario exigen el levantamiento de la intervención de comunicaciones en el momento en que deje de ser necesaria por cesación o reducción de las circunstancias que la justificaron, en cuanto se legitima exclusivamente como medida imprescindible por razones de seguridad, buen orden del Establecimiento e interés del tratamiento.

Durante 2020 y 2021, en diferentes autos, el JCVP procedió a no avalar algunos acuerdos de renovación de intervención de comunicaciones adecuándose al nuevo tiempo político y penitenciario “...el contenido de la resolución por la que se acuerda la progresión a segundo grado tiene influencia y debe ser valorado a los efectos de resolver sobre la procedencia del mantenimiento de la medida de intervención...” y “no cabe sino señalar que las razones y motivos que fundamentan la continuidad de la intervención, no se corresponden con la situación que ha dado lugar a la progresión de grado del interno, por lo que, no se darían en el momento actual, las razones de seguridad, interés del tratamiento y buen orden del establecimiento que justificaría la aplicación excepcional de una medida restrictiva del derecho fundamental al secreto de las comunicaciones, por lo

que, procede la estimación del recurso, dejando sin efecto la intervención de comunicaciones”.

En el mismo sentido en otros autos insiste “en el expediente pone de manifiesto que, al menos desde la progresión de grado concurren signos de abandono de los fines y medios terroristas y no hay nada que indique la existencia de vínculos o contactos con la organización terrorista...” “Tales circunstancias ponen de manifiesto que las razones y motivos que fundamentaron el acuerdo de intervención, no se corresponden con la situación, por lo que, no se darían en el momento actual, las razones que justificarían la aplicación excepcional de una medida restrictiva del derecho fundamental al secreto de las comunicaciones”.

Dicho de otro modo, la progresión a segundo grado implica que se aprecia que ya no hay peligrosidad y, por ello, debe decaer o le debe ser retirada la intervención de comunicaciones al preso. Este, es igualmente el contenido y sentido de la notificación de suspensión del acuerdo de intervención de comunicaciones aplicado ya en algún Centro Penitenciario: “le informo que en el día de la fecha esta dirección ha resuelto suspender el acuerdo adoptado en su día, referido a la intervención de comunicaciones (orales y escritas) realizadas por el interno XX XXX, debido a que han cesado las causas que lo motivaron.

Todo indicaba que una vez constata-da la desaparición de ETA, la actitud

general de los presos y que la mayoría están clasificados en 2º grado penitenciario, la coherencia se haría un hueco poniendo fin a décadas de excepcionalidad también en este apartado. Es decir, que en la misma medida que se fueron produciendo la salida de las unidades especiales de régimen cerrado, traslados a nuevos destinos y progresiones de grado al régimen ordinario, el siguiente paso lógico era la desaparición de la generalizada y discrecional intervención de las comunicaciones.

Sin embargo, frente a los autos mencionados o las notificaciones de suspensión de acuerdo de intervención, se ha procedido a una involución por parte de las direcciones de algunas cárceles que continúan remitiendo a los presos notificaciones con argumentos del pasado y que muestran signos inequívocos de una voluntad de seguir manteniendo la intervención de las comunicaciones por el motivo que sea.

Así lo muestran los argumentarios mencionados y, es evidente que por mucho que se intente asegurar que la intervención es una medida excepcional e individualizada, continua siendo una medida que no es excepcional sino discrecional, y que no es individual sino colectiva. Es una medida que sigue obedeciendo a una política de excepción de tal suerte que, por un motivo u otro, se sigue renovando cuasi-sistemáticamente cada seis meses sin atención ninguna a la continuidad o no de las circunstancias que según la ley se dicen motivo para su aplicación.

De la misma manera que para algunos jueces y fiscales nunca hay motivos para permisos o terceros grados (exigiendo lo que no procede: perdón, arrepentimiento, colaboración, dejar EPPK,...) para algunos directores de prisiones de su mismo sesgo ideológico, y por el mismo motivo, nunca parecen decaer las circunstancias que ponen en peligro la seguridad o el buen orden del Establecimiento.

FREE THEM ALL 195

Berrehuneko mailaz azpitik jarri da aurtengo udan kolektiboko euskal preso politikoen kopurua, 195 kide izateraino jaitsiz. Asko dira hala ere, baina ez da ahaztu behar azken lau hamarkadetan izan den kopururik txikiena da. Hirurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, 1978an eta 1979an, 102 eta 117 ziren, hurrenez hurren, arrazoi politikoengatik espetxean zeuden euskal herritarrak. Orduz geroztik beti izan da gaur egungoa baino handiagoa euskal preso politikoen kopurua.

Kopuruaren beherakada horrek ez du zerikusirik, dena den, espetxe-politika berriak edo gobernuen balizko borondate onak ezarritako neurriekin. Kartzelatik atera diren gehien-gehienak kondena osoa agortu ondoren atera baitira.

Horrela izan zen, adibidez, askatutako azken 5 presoek kasuan. Frantziar Estatuan 11 eta 13 urteko espetxealdia egin ondoren aske geratu ziren bi, eta 25 urte luzez Estatu espainiarrean preso egon ondoren, Euskal Herrira iritsi gabe edo kaleratzear zirenean iritsita, askatu zituzten beste hiruak.

Beraien legeak eskuan, euskal presoek % 84k jada kalea zapaldu beharko lukete; eta espainiar Estatuan dauden 173 presoak balira erreferentzia, bakoitzaren egoeraren arabera irteteera baimenak, hirugarren gradua edo bal-

dintzapeko askatasuna izateko eskubidea lukete % 90ek. Baina hori ez da gertatzen, 9 preso baino ez dutelako lortu baldintzapekoa, 8 preso baino ez daudelako etxean preso (86.4 artikulua), 3 preso erdi-aske (3. gradua) eta beste 10 preso irtetea baimenekin kaleratuz. Hau da, horretarako eskubidea duten 157 presoetatik 134ri beren eskubideak ukatzen eta salbuespenezko politika orokorra aplikatzen jarraitzen zaie. Preso horiek ahalik eta denbora gehien gatibu mantentzeko nahiagatik eta indarrean dauden eskubide urraketen ondorioz, salbuespeneko espetxe-politikak bere horretan jarraitzen du.

Euskal preso politikoen kolektiboak antzeko beste trikimailu batzuk jasan izan ditu espetxealdia luzatzeko: hirurogeita hamar preso baino gehiagori eragin zien "Parot doktrina" deiturikoa, inputazio berriak eta sumarioen irekierak, eta beste estatu batzuetan betetako kondenak zenbatzeko Europako Arauaren transposizio bihurrituak.

Oraindik indarrean jarraitzen du transposizio anker honek, 60 inguru euskal preso politikori urteetako zigor gehituak betearaziz. Eta 7/2003 Legeari buruz, berriz, zer esan. 50etik gora dira lege honek eragiten dien euskal preso politikoak. Lege honek, kasuan kasu 30 eta 40 urtera igo zuen osorik eta erredentzio aukerarik gabe bete beharreko espetxealdia; lege horren 78. artikulua ebazten du %ak bete arte ezin duela presoak baldintzapeko askatasuna eskatu.

Presoen egoera eta espetxetako helbideak

Urteak preso	10	Zigor batuketa	4
Larriki gaixo	+	Betetako zigorra	¾ ½ ¼
2. gradua	2	Gurasoa	22
3. gradua	3	100.2 artikulua	+

Etxean preso

Araba

Bengoa López de Armentia, Asier 13 3¼

Bizkaia

Foruria Zubialde, José Ramón 17 + 3 +70
Martín Hernando, Jesus María 17 + 3 ¾

Gipuzkoa

Etxaniz Alkorta, Sebas 18 3¼ +70
Gogorza Otaegi, Aitzol 21 + 2 * ¾
Salaberria Etxebeeste, Emilio 19 ¾ +65

Lapurdi

Haranburu, Frederic 31 +65 22

Nafarroa

Pérez Aldunate, Xabier 16 2 * ¾

Euskal Herrian

CP Araba Zaballa

Portillo San Miguel, 1. N-1, km. 340
01230, Langraitz (Araba)

Aretxabaleta Rodríguez, Liher 12 2 4 22
Armendariz Izagirre, Iñaki 23 2 ¾
Aramendi Juanena, Alaitz 13 2 4
Barbarin Iurrebaso, Ainhoa 19 2 ¾
Bilbao Solaetxe, Unai 19 2 ½
Etxeberria Oiarbide, Jon 10 2 ½
García Arrieta, Garikoitz 11 2 ½
Iparragirre Guenetxea, Marixol 16 4 22
Lauzirika Oribe, Karmelo 16 2 ½
Lebrero Panizo, Roberto 19 2 ¾
Loran Lafourcade, Gorka 17 2 ¾
López de Okariz, Unai 19 2 ¾ 22
López Anta, Ángel 19 2 ¾
Mardones Esteban, Asier 17 2 ½ 22
Markes Zelaia, Patxi 23 2 ¾

Martínez de Osaba Arregi, Igor 21 2 ½ 22
Orbe Sevillano, Zigor 16 2 ¾
Olaizola Baseta, Aitor 20 2 ½
Ordoñez Fernández, Josu 18 2 ¾
Oña Ispizua, Josune 17 2 ½ 22
Polo Escobes, Sergio 22 2 ¾ 22
Saenz Olarra, Balbino 18 2 4 ½
Vidal Álvaro, Gorka 17 2 ¾
Yañez Ortiz de Barron, Iratxe 11 2 ½
Zubiaurre Agirre, Jon 20 2 ½

Besarkada etxea Gasteiz

Iparragire Burgoa, Ibon 11 + 2 2 * ¼ 22

Aita menni ospitalea Arrasate

Arronategi Azurmendi, Kepa 23 + 2 2 * ¾ 22

CP Bizkaia Basauri

Lehendakari Agirre 92
48970, Basauri (Bizkaia)
Crespo Ortega, Jon 18 3 ¾
Beobide Arza, Ibai 11 2 ¼ 22
Bilbao Gaubeka, Iñaki 23 2 ¾
Borde Gaztelumendi, Joseba 18 + 2 ¾ +60
Coto Etxeandia, Egoitz 18 2 ¾ 22
Fano Aldasoro, Unai 12 2 ½ 22
Garces Beitia, Iñaki 23 2 ¾ 22
Herrera Vieites, Aitor 17 2 ½
Lerin Sánchez, José Ángel 14 2 ½
Maurtua Eguren, Aitzol 18 2 ¾ 22
Merino Bilbao, Guillermo 20 2 ¾
Pérez Zorriketa, Ugaitz 18 2 ½
Rodríguez López, Asier 10 2 ½
Subijana Izquierdo, Juan Carlos 18 2 4 ½

CP Gipuzkoa Martutene

Martutene kalea, 1
20014, Donostia (Gipuzkoa)
Arrieta Llopis, Mikel 21 + 3 ¾
Agote Cillero, Arkaitz 14 2 ½
Arregi Erostarbe, Joseba 23 2 4 ¾ +70
Apeztegia Jaka, Karlos 23 2 ¾ 22
Atristain Gorosabel, Javier 10 2 ½ 22
Esnaola Dorronsoro, Aitor 10 2 ½
Fuentes Villota, Raúl 12 2 ¼ 22
Goikoetxea Gabirondo, Andoni 2 ¼
Jauregi Amondarain, Oskarbi 19 2 ½ 22
Karrera Arenzana, Asier 20 2 ½ 22
Larretxea Mendiola, Joanes 11 2 4 ¼ 22
Martitegi Lizaso, Jurdan 12 2 4 22
Ramada Estevez, Francisco José 20 2 ¾ 22
San Argimiro Isasa, Mikel 19 2 ¾ 22
Zaldúa Iriberri, Itsaso 22

CP Pamplona I Iruñea

Colina Santa Lucía kalea, s/n,
31012 Pamplona (Nafarroa)
Arizkuren Ruiz, Josetxo 22 + 2 2 * 4 ½ +60 22
Arriaga Martinez, Josune 11 2 ½ +60

Altable Etxarte, Jesús María 26 2 4 ¾ +60
Arruarte Santacruz, Garikoitz 17 + 2 ¾
Dorronsoro Malasetxeberria, J. M. 27 2 4 ½ +60 22
González González, Jon 17 2 ¾ 22
Gómez Ezkerro, Jesus María 20 3 ¾ +60
Otegi Unanue, Mikel 18 + 2 4 ½
Portu Juanena, Igor 13 2 ¼ 22
Sola Campillo, Aurken 11 2 ½
Mendizabal Mujika, Idoia 15 2 4 ¾ 22

Espainiar estatuan

CP El Dueso 170 km - 1h 58'

Avenida de Berriá SN
39740 Santoña (Cantabria)
Atxurra Egurrola, Julen 24 2 4 ¾ 22
Armendariz González Langarika, Lierni 20 + 2 ½ 22
Azurmendi Peñagarikano, Mikel 23 ¾ 22
Badiola Lasarte, Asier 11 2 ¼ 22
Borrero Toribio, Asier 12
Castro Zabaleta, Manex 12 2 ¼ 22
Etxeberria Martin, Iñaki 25 + 2 4 ¾ 22
Etxebarria Caballero, Beatriz 10 2 ¼ 22
Garate Galarza, Endika 17 2 4 ½ +60
Goieaskoetxea Arronategi, Eneko 10 2 ¼ 22
Herrador Pouso, Juan Carlos 2 ¾
Inziarte Gallardo, Juan Manuel 11 2 ½ +65 22
Karasatorre Aldaz, Juan Ramón 19 2 4 ¾ 22
Telleria Uriarte, Angel + 2 +60 22
Makazaga Azurmendi, Xabier 19 2 ½
Martínez Ahedo, Gorka 23 2 4 ½ 22
Miner Villanueva, Imanol 19 2 ½
Pedrosa Barrenetxea, Maite 23 2 ¾ 22
Rubenach Roiz, Jon 17 2 4
Vallejo Franco, Iñigo 17 2 4 ¾
Zapirain Romano, Iñigo 10 2 ¼ 22

CP Logroño 170 km - 2h 07'

Calleja Vieja, 200, Apdo. 217
26006 Logroño (La Rioja)
Agirresarobe Pagola, Gurutz 10 2 22
Aienza Laborda, Ibai 19 2 ½
Aienza Laborda, Mikel 19 2 ½
Aragon Iroz, Santiago 19 2 ½ 22
Arzalluz Goñi, Asier 19 2 4 ½ 22
Alberdi Uranga, Itziar 2 ¼ 22
Berasategi Eskudero, Ismael 18 2 4 ½
Barreras Díaz, Oskar 24 2 ¾
Cano Hernandez, Pedro María 19 2 ½
Franco Martínez, Bittor 18 2 ¾ 22
Garitagoitia Salegi, Iurgi 12 2 4
Goikoetxea Basabe, Arkaitz 2 ¼ 22
Iragi Gurrutxaga, Harriet 20 2 ½ 22
López Resina, Dolores 19 2 4 +70

Lupiañez Mintegi, Gorka
Mujika Goñi, Ainhoa
Narvaez Goñi, Juan Jesús
Olarra Guridi, Jon
Olabarrieta Colorado, Iker
Sáez de la Cuesta, Alicia
Troitiño Ciria, Jon
Zabalo Beitia, Xabier

CP Burgos
215 km - 2h 17’

Avenida Costa Rica, s/n Apdo. 253
09001 Burgos
Arri Pascual, Álvaro
García Aliaga, Aitor
Segurola Beobide, Joseba
Vicario Setien, Gregorio
Zubiaga Bravo, Manex
Zurutuza Sarasola, Jose Antonio

CP Zaragoza Zuera
245 km - 2h 54’

Autovía A-23, km. 328
50800 Zuera (Zaragoza)
Barrios Martín, José Luis
Gallastegi Sodupe, Lexuri
Izpura García, Mikel
Pérez Aristizabal, Eider
Solana Matarran, Jon Igor
Vila Mitxelena, Fermin

CP Daroca Zaragoza
345 km - 3h 31’

Ctra. Nombrevilla, s/n
50.360 Daroca (Zaragoza)
Gallaga Ruiz, Javier
Gurtubai Sánchez, Sebas
Marcos Álvarez, Faustino

CP Soria
260 km - 2h 57’

Calle Marqués del Saltillo n. 1
42004 Soria
Agirre Lete, Juan Luis
Ayestaran Legorburu, J. Lorenzo
Bravo Saez de Urabain, Zigor
San Sebastián Gaztelumendi, Mikel
Zelarain Ortiz, Oskar

CP Dueñas La Moraleja
310 km - 3h 03’

Carretera P-120
34210 Dueñas (Palencia)
Aginagalde Ugartemendia, Beñat
Aranburu Sodupe, Gotzon
Besance Zugasti, Juan Carlos
Bienzobas Arretxe, Jon Mikel
Cotano Sinde, Aitor

Etxeberria Goikoetxea, Garikoitz
Eskudero Balerdi, Gregorio
Iglesias Chouzas, Juan Carlos
San Pedro Blanco, Jon Mirena
Mariñelarena Garziandia, Luis
Sarasola Yarzabal, Mattin

CP León Mansilla
370 km - 3h 36’
Finca Villahierro, 24210
Mansilla de las Mulas (León)

Elejalde Tapia, Fernando
Etxeberria Garaikoetxea, Jesús Mari
García Jodrá, Fernando
Ginea Sagasti, Josu
Guridi Lasa, Iñigo
Krutxaga Elezkano, Iñaki
Lima Sagarna, Iker
Novoa Arroniz, Jose Mari
Parot Navarro, Unai
Ugarte López de Arkaute, Diego

CP Asturias Villabona
385 km - 3h 57’
Finca Tabladillo (AS17-Avilés)
33480 Villabona (Asturies)

Agirrebarrena Beldarrain, Aitor
Blanco Santisteban, Zigor
Egues Gurrutxaga, Ana Belen
García Justo, Asier
Gartzia Montero, Ainhoa
López de la Calle Gauna, Alberto

CP Topas Salamanca
460 km - 4h 32’

Ctra. N-630, km. 314
37799 Topas (Salamanca)
Gallastegi Sodupe, Orkatz
Viedma Morillas, Alberto

CP Madrid I Alcalá Meco
450 km - 4h 49’
Carretera de Alcalá Meco,
km. 4,5 28803 Alcalá de Henares
(Madrid)

Jauregi Espina, Jaione

CP Madrid V Soto del real
430 km - 4h 26’
Carretera M-609, km. 3’5
28791 Soto del Real (Madrid)

Reta Frutos, Iñaki

CP Madrid VI Aranjuez
520 km - 5h 07’

Carretera N-400, km. 28
28300 Aranjuez (Madrid)
Gutiérrez Carrillo, Iñigo
Lizarraga Merino, María + Umea

CP Madrid VII Estremera
520 km - 5h 06’
Carretera M-241, km. 5,750
28595 Estremera (Madrid)

García Gaztelu, Xabier
Palacios Abad, Gorka
Gallastegi Sodupe, Irantzu

Frantziar estatuan

Mont de Marsan CP
260 km - 1h 51’
Chemin de Pémégnan B.P. 90629
40.006 Mont-de-Marsan Cedex

Goienetxea Irigorri, Xabier
Sirvent Auzmendi, Ekaitz
Urbietia Alkorta, Josu

Lannemezan CP
330 km - 2h 18’
Chemin de la Plaine B.P. 166
65.307 Lannemezan Cédex

Abaunza Martínez, Javier
Agirregabiria del Barrio, Arkaitz
Aspiazu Rubina, Garikoitz
Esparza Luri, Iñaki
EsnaI, Jakes
Etxaburu Artetxe, Aitzol
Fernández Iradi, Ibon
Iriondo Iarza, Aitzol
Iruretagoiena Lanz, Luis
Karrera Sarobe, Mikel
Maiza Artola, Gurutz
Martínez Bergara, Fermin
Oizartabal Txapartegi, Asier

Muret CD
425 km - 3h 08’
Route de Seysses B.P. 312
31.605 Muret Cédex


Parot Navarro, Ion

Rennes CP
795 km - 7h 39’
18 bis, Rue de Châtillon B.P. 3.107
35.031 Rennes Cédex
Moreno Martínez, Itziar

Reau Sud
Francilien CP
930 km - 8h 33’
CR 8 Lieu dit du Moulin à Vent
77.550 Réau

Lesaka Argüelles, Izaskun
Ozaeta Mendikute, Ainhoa
Sorzabal Díaz, Iratxe

Dispersio eta urruntasunaren mapa



Kartzelakoak, Deserrikoak

Errepresaliatu politikoen berri

EKAINAK 5

ANDONI GOIKOETXEA EL DUESON

Andoni Goikoetxea Gabirondo preso politiko gazteluarra Dueñaseko espetxetik El Duesoko espetxera lekualdatu dute.



EKAINAK 10

DAVID URDIN LIBRE

Bi urteko espetxe zigorra ezarri ondoren aske da David Urdin Perez nafarra. Gaur epaitu dute Auzitegi Nazonalean, eta Fiskaltzarekin akordioa lortu ostean ez du espetxera itzuli beharko. 2007tik 2009ra bitarte hamabost hilabete eman zituen preso.

EKAINAK 13

LEKUALDAKETAK

Iratxe Yañez Ortiz de Baron preso politiko gasteiztarra Villabonatik Zaballako espetxera ekarri dute. Bestetik, Jon Rubenach Roig Iruñeko preso politikoa Leonetik eta Asier Borrero Toribio Algortarra Dueñasetik El Duesoko espetxera, eta Juan Luis Agirre Lete astigarra Zueratik Soriara lekualdatu dituzte.

207-206

EKAINAK 19

OLATZ ETA PATXI LIBRE

Hirugarren graduan kontrol telematikoarekin zeuden Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga 12 urteko espetxe zigorra bete ostean aske gelditu dira.

EKAINAK 20

ASIER ARZALLUZ LOGROÑO

Asier Arzalluz Goñi preso politiko donostiarra Sevillako espetxetik Logroñora lekualdatu dute.

EKAINAK 23

LEKUALDAKETAK

Marixol Iparragirre preso politiko eskoriatzarra Brievatik Zaballako espetxera hurbildu dute. Bestetik, Lexuri Gallastegi Sodupe berangoztarra eta Alberto Viedma Morillas iruindarra Almeriatik Zuerako espetxera lekualdatu dituzte.

205

EKAINAK 24

DIDIER AGERRE KALEAN

Frantziako espetxeetan hogeitaz eman ondoren, Lannemezango kartzelatik atera da gaur Didier Agerre preso politiko zuberotarra.

EKAINAK 29

LEKUALDAKETAK

Raul Fuentes Villota preso politiko bilbotarra El Duesotik Martutenera hurbildu dute. Bestetik, Pedro Mari Cano Hernandez preso hernaniarra Castello I espetxetik Logroñora lekualdatu dute.

UZTAILAK 14

LEKUALDAKETAK

Agustin Almaraz Larrañaga preso politiko bilbotarra Zueratik Basaurira eta Arkaitz Agote Cillero donostiarra El Duesotik Martutenera hurbildu dituzte. Bestetik, Aitor Cotano Sinde algortarra Puerto III espetxetik Dueñasera eta Orkatz Gallastegi Sodupe berangoztarra Castello I espetxetik Topasera lekualdatu dituzte.

UZTAILAK 25

LEKUALDAKETAK

Asier Mardones Esteban preso politiko bilbotarra Logroñotik, eta Liher Aretxabaleta Rodriguez bilbotarra eta Jon Zubiaurre Agirre donostiarra Burgosetik Zaballara, eta Aitzol Maurtua Eguren atxondotarra Dueñasetik eta Aitor Herrera Vieites

santurtziarra El Duesotik Basaurira hurbildu dituzte.

Bestetik, Jesus Mari Etxebarria Garaikoetxea errenteriarra Puerto III espetxetik Leonera eta Oskar Barreras Diaz bilbotarra Puerto III espetxetik Logroñora lekualdatu dituzte. Horrez gain, estatu frantsean, Fermin Martinez Bergara lodosarra, Luis Iruretagoiena Lanz tolosarra eta Aitzol Etxaburu Artetxe ondarrutarra Mont de Marsanetik Lannemezanera lekualdatu dituzte.

204 - 203

ABUZTUAK 3

IDOIA MARTINEZ ETA URKO LABEAGA BALDITZAPEAN

Idoia Martinez Garcia Arrigorriagako preso politikoa eta Urko Labeaga Garcia sopoloztarra baldintzapeko askatasunean atera dira. Martinez eta Labeaga 23na urteko espetxealdia egin ostean aske gelditu dira.

202

ABUZTUAK 5

IGOR SUBERBIOLA ASKE

Igor Suberbiola preso politikoa donostiarra, frantziar espetxeetan 13 urte eman ondoren, Mont de Marsango kartzelatik atera da libre.

ABUZTUAK 6

JOSUNE OÑA ZABALLAN

Etxebarriko preso den Josune Oña Ispizua hurbildua izan da Logroñotik Zaballako espetxera.

201

ABUZTUAK 11

ANDONI MURGA KALEAN

Andoni Murga Zenarruzabeitia preso politikoa audioarra aske geratu da. Zuerako espetxetik atera da 26 urtez preso egon ondoren.

ABUZTUAK 11

LEKUALDAKETAK

Itsaso Zaldia Iriberrri preso politikoa hernaniarra Villabonatik Martutenera hurbildu dute. Bestetik, Iñaki Krutxaga Elezkano galdakoztarra Almeriatik Leonera lekualdatu dute.

ABUZTUAK 16

LEKUALDAKETAK

Txuma Altable Etxarte preso politikoa iruindarra Soriatik Iruñeara, Egoitz Coto Etxandia barakaldotarra El Duesotik Basaurira eta Aitor Olaizola Baseta irundarra Logroñotik Zaballara hurbildu dituzte. Bestetik, Iurgi Garitagoitia Salegi bilbotarra Sototik Logroñora lekualdatu dute.

200

ABUZTUAK 17

AITOR FRESNEDO KALEAN

Aitor Fresnedo Gerrikabeitia preso politikoa portugalearra aske geratu da. Logroñoko espetxetik atera da 25 urteko zigorra bete ondoren.

199

ABUZTUAK 19

JOSEBA FERNANDEZ ASKE

Joseba Fernandez Aspurz Txantreako euskal preso politikoa Barajasen aske utzi dute, Frantziar Estatuan 11 urte preso eman ondoren.

198

ABUZTUAK 23

AGUS ALMARAZ KALEAN

Agus Almaraz Larrañaga preso politikoa bilbotarra Basauriko espetxetik atera da kalera, 25 urteko espetxealdia bete ondoren.

ABUZTUAK 30

IKER OLABARRIETA LOGROÑON

Iker Olabarrieta Colorado preso politikoa bilbotarra Sevilla II-ko espetxetik Logroñora lekualdatu dute.

IRAILAK 10

LEKUALDAKETAK

Joseba Lerin Sánchez Berriozarreko preso politikoa eta Guillermo Merino Bilbao durangarra Zueratik, eta Asier Rodríguez López santurtziarra Soriatik Basaurira hurbildu dituzte. Zaballara hurbildu dute ere Jon Etxebarria Oiarbide gasteiztarra, El Duesotik. Bestetik, Imanol Miner Villanueva hernaniarra Dueñasetik El Duesora lekualdatu dute.

IRAILAK 15

JOSU ORDOÑEZ ZABALLAN

Josu Ordoñez Fernandez preso politikoa donostiarra Topasetik Zaballara hurbildu dute.

IRAILAK 29

ESPETXE INSTITUZIOETAKO IRAGARPENA

Espetxe Institutuzioek 9 presoren herriratzea iragarri ditu. Martutenera ekarriko dituzte Andoni Goikoetxea eta Joanes Larretxea; Basaurira Ibai Beobide, Unai Bilbao eta Joseba Borde; Zaballara Alaitz Aramendi; eta Iruñeara Igor Portu. Honekin batera, Jesus Gomez Ezkerrori eta Jon Crespori, Iruñeara eta Basaurira ekartzeaz gain, 3. gradua emango dietela adierazi dute.

IRAILAK 30

"AUKERAK" ELKARGOA

2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, "Aukerak" Gizarteratzearen Euskal Elkargoa arduratuko da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako espetxeetako presoaren gizarteratzea eta laneratzea kudeatzeaz.



URRIAK 1

UNAI FANO BERRIZ KARTZELARA

Urtarriletik 3. graduari eta ekainetik 86.4 artikulua aplikatuta etxean zigorra betetzen ari zen Unai Fano berriz espetxeratua izan da. Fiskal helegitea jarrita, Audientzia Nazionalen lehenengo aretoak fiskalaren argudioak berretsi eta 2. gradura itzuli dute.

URRIAK 4

JON CRESPO BASAUKO CISEN

Jon Crespo Ortega preso politikoa galdakoztarra El Duesotik Basaurira hurbildu dute, 3. graduari.

URRIAK 4

IRAGARRI GABEKO NOTIFIKAZIOAK

Manex Castro Zabaleta, Mikel Azurmendi Peñagarikano, Maite Pedrosa Barrenetxea, Lola Lopez Resina, Ismael Berasategi Eskudero eta Zigor Blanco Santisteban preso politikoek notifikazio bana jaso dute El Duesora (lehenengo hirurak),

Egin dezagun topa!

6 kopa x 52zl

25€



Egin eskaria webgunean eta jaso ohiko puntuetan

Logroñora (Lopez eta Berasategi) eta Basaurira (Blanco) lekualdatuko dituztela esanez.

197

URRIAK 6

XABIER AGIRRE BALDINTZAPEAN

Xabier Agirre Ibañez Gasteizko preso politikoa baldintzapeko askatasuna eskuratu du 10 urteko kartzelaldia bete ostean.

URRIAK 8

LEKUALDAKETAK

Unai Bilbao Solaetxe preso politiko portugaleterra Darocatik Zaballara, Ibai Beobide Arza bilbotarra Burgosetik Basaurira, Igor Portu Juanena lesakarra Darocatik Iruñeara eta Joanes Larretxea Mendiola hernaniarra Villabonatik eta Andoni Goikoetxea Gabirondo gaztelutarra Martutenera hurbildu dituzte. Bestetik, Mikel Azurmendi Peñagarikano beasaindarra Zueratik

eta Manex Castro Zabaleta villabonarra Darocatik El Duesora lekualdatu dituzte.

URRIAK 11

TXUTXO GOMEZ IRUÑEKO CISEN

Jesus Mari Gomez Ezkerro preso politiko iruindarra Villabonako espetxetik Iruñeko espetxera hurbildu dute, 3. graduan.

URRIAK 13

LEKUALDAKETAK

Joseba Borde Gaztelumendi preso politiko ugaoarra El Duesotik Basaurira hurbildu dute. Bestetik, Ismael Berasategi Eskudero mendarotarra Villabonatik Logroñora lekualdatu dute.

URRIAK 15

ALAITZ ARAMENDI ZABALLAN

Alaitz Aramendi Jaunarena preso politiko orozkoarra Brievatik Zaballara hurbildu dute.

AZAROAK 4

AGUR BRIEVA, LOLA LOGROÑON

Lola Lopez Resina euskal preso politikoa Brievako espetxean zegoen azken preso politikoa Logroñora lekualdatu zuten.

196

AZAROAK 8

OLGA COMES BALDINTZAPEAN

Olga Comes Arrambillet Iruñako preso politikoa baldintzapeko askatasuna eskuratu du 13 urteko kartzelaldia bete ondoren.


195

AZAROAK 12

IRKUS BADILLO BALDINTZAPEAN

Irkus Badillo Borde Ugaoko preso politikoa baldintzapeko askatasuna eskuratu du 17 urteko kartzelaldia bete ostean.

Krisi kronikoa eta ofentsiba soziosindikal subiranista



Argazkia. Bilbo.
Tubacexen lehen
epaiketa, elkarretaratzea.

Jendarte osoa eta bereziki langile jendea astindu duen pandemia bizi izan dugu. Ohi bezala, gertatu denaren inguruko errelato ofiziala ezarri nahi dute botere nagusiek eta instituzioek: honen arabera, pandemia parentesi bat besterik ez litzateke, eta orain hazkunde ekonomikoa berreskuratzeke baldintzetan geundeke. Ez legoke arrazoirik egiturazko aldaketak egiteko, energia iturrien agorpena nahiz larrialdi klimatikoarengatik ez balitz. Afera hauei dagokionez, energi iturriak eta zenbait material ordezkatzeko prozesu tekno-produktiboa litzateke soluzioa, egitura soziopolitikoetan aldaketarik egin gabe. Hitz batez, hazkunde ekonomikoari eustea ahalbidetuko lukeen Kapitalismo Berde-digitala garatzeko unea litzateke oraingoa. Eta bideragarritasun arazo sakonak dituen helburu horri hauspoa emateko, 2008ko krisian ez bezala zorpetze publikoa ahalbidetu eta Europa mailako funtsak banatzea erabaki du Europako Batasunak.

Aldiz, bizi izandakoaren eta bizi-tzen ari garenen inguruko beste ikusmolde bat da gurea. Pandemiak agerian utzi ditu egungo sistema sozioekonomikoaren gabeziak, hala

nola, zaintza sistemaren azpigarapena, osasun sistemaren baliabide falta edota oinarritzotzat jotzen diren lan horietan aritzen diren emakume langileen prekarietatea. Agerian utzi du, halaber, Euskal Herriaren burujabetza eza: Madril eta Parisetik ezarri dira erabakiak, ikuspegi belikoaz gainera, pandemian ez baizik eta gerran bageunde bezala. Era berean, pandemiak azkartu egin ditu lehendik zetozen hainbat joera, hala nola, merkataritza txikiaren ahultzea eta plataforma teknologiko erraldoien hazkundea. Eta ondorioak izan ditu, izan dituen, langileon lan eta bizi baldintza materialetan, baita gogogorputzetan ere.

Hainbat egoeren aurrean asmatzeko zailtasunik falta ez bada ere, ezker subiranismoa pandemiaren inguruko diskurtso eta praktika eraldatzailerak garatzen saiatu da. Pandemiaren kudeaketa birzentralizatzailea, autoritarioa eta klasista salatu dugu; zaintza sareak antolatu ditugu herriz herri; zerbitzu publikoetako hutsuneak salatzeke mobilizazioak egin ditugu; itxialdiak ezarritako baldintza zailetan ere babes sindikala helarazten saiatu gara; eta krisiaz baliatuta suntsitu nahi ziren lan-



Ofentsiba soziosindikal horri bultzada emateko, eremuz eremukako borroka sustatzearekin batera, Greba Orokor berri bat antolatzeke lanean ari gara.

postuen defentsan borrokatu dugu. Azken honi dagokionez, Tubacexena bezalako borrokek enpresarien asmoak baldintzatu dituzte eta, zorionez, industrian behintzat ez da egon aurreikusten zen moduko enplegu suntsiketarik.

Edozein kasutan ere, langileongana-ko ondorioak arintzen saiatu bagara ere, esan dezakegu azken bi urteetako gertakariak 2008tik zetorren eta jada kronikoa bilakatu den krisi egoeran sakondu duela. Sindemia edota krisi sistemikoa bezalako hitzak erabiltzen ditugu egungo egoera deskribatzeko. Hitz gutxitan azaltzearen, orain arte sistema kapitalista injustua eta zanpatzailea zela salatzen genuen, baina ematen zuen nolabaiteko arrakasta zuela munduko lurralde batzuetan bizi baldintza materialei dagokionean behintzat. 2008az geroztik, nabarmena da promesa neoliberalak (hurrengo belaunaldia hobe biziko da) porrot egin duela eta sistema sozioekonomikoa, egun ezagutzen dugun bezala, bideraezina dela.

Honela, borroka sindikalen ondoreari esker langile sektore batzuk lan eta bizi baldintza duinei eusten badiete ere, aspalditik datorren dualizazio prozesuak aurrera darrai: lan egiteko adinean egonda ere populazio inaktibo gisa konputatzen duten langileak (horietako gehienak, norberaren etxeko zaintza lanean ari diren emakumeak), lanean egonda 1400 euro gordinetik behera

jasotzen dutenak eta langabezia daudenak, batuta, 769.900 dira (lan egiteko adinean dauden langileen %52,7). Behin pandemia gainditze bidean dela, datorren fase ekonomikoaren nolakotasuna dago jokoan. Aldaketa sakonak egongo dira datorren hamarkadan, horretan ez dago zalantzarik. Jokoan dagoena, aldatketen gaineko kontrola (Kapitalaren gidaritza vs. ekonomiaren gaineko kontrol publiko eta soziala berreskuratu) eta norabidea (Kapitalismo berde digitala vs. Trantsizio ekosozialista eta feminista) da. Eta Euskal Herrian bada lehia horretan esku hartu nahi duen esparru sozial, sindikal eta politiko zabala.

Estrategia komun bat adosteko zailtasunak begi bistakoak badira ere, badugu nolabaiteko agenda sozial partekatua: 1400 euroko gutxieneko soldata, 35 orduko gehieneko lanaldia, 1080 euroko gutxieneko pentsioa, zerbitzu publikoen garapena, zaintza sistema publiko komunitarioaren sorrera, zerga erreforma... Lantokietan nahiz kalean aldarrikapen hauen aldeko borroka fase oso bat antolatzea dugu erronka. Ofentsiba soziosindikal horri bultzada emateko, eremuz eremukako borroka sustatzearekin batera, Greba Orokor berri bat antolatzeke lanean ari gara.

Borroka fase berri honek badu epe motzeko geltokia. Datozen hila-beteetan erabaki garrantzitsuak hartuko dira Hego Euskal Herriko

langileen lan- eta bizi-baldintzei dagokienez. Erabaki horietako asko (lan erreforma, pentsio sistema, Europako funtsak, argindarraren prezioa) estatu mailan ebazten dira, eta horrek agerian uzten du egungo autogobernuak funtsezko gaiei helitzeko dituen mugak. Estatu mailako indar korrelazioa kontuan hartuta, eta ikusirik Estatuko sindikalismoa borrokarako estrategiarik gabe ari dela kudeatzen abagune hau, akatsa litzateke itxaropen oro Madrilen lor litezkeen aurrerapausoetan jartzea.

Estatu mailan langileon alde ahalik eta gehien lortzeko ekarpena egin behar du Euskal Herriko ezker subiranismoak. Baina horrekin batera, lan eta bizi baldintzei buruzko erabakiak Euskal Herrian hartzea aldarrikatu behar du, euskal langileria ordezkatzeko ez duen elkarrizketa sozialaren esparrua inpugnatuz. Eta estatu mailan posible ez dena Euskal Herrian posible egiteko estrategia garatu behar du. Lan-erreformaren indargabetzea eta lan-kode propioa aldarrikatzearekin batera, prekarizazio prozesua geldiarazteko eta eskubideetan aurrera egiteko borroka piztuz. Edota estatuko pentsio-sisteman eginga dako murrizketak bertan behera utzi eta Gizarte Segurantzaren propioa aldarrikatzearekin batera, EAEko eta Nafarroako Gobernuak pentsio baxuenak 1080 euroraino osatzera behartuz. Hau da, krisi kronikoaren aurrean ofentsiba soziosindikal subiranista abian jarritz.

Sistema publiko burujaberantz

Hezkuntza sistema segregatzailetik, sistema publiko burujaberantz trantsizioa martxan

Ia hiru urte eman ditu ezker independentistak, Plaza Hutsaren markoan, euskal hezkuntza-sistema ereduaren gaineko hausnarketa estrategikoa egiten ehunka kideren parte hartzearekin. Horren emaitza da (H)arian txostena. Bertan, Euskal Herriko hezkuntza-sistemen diagnostikoa ezker independentismoaren begiradatik egin dugu, Euskal Publikotasunaren eraikuntza dugula ipar ondorioztatu dugu, eta azkenik, euskal hezkuntza feminista, komunitario eta burujaberantz trantsizio fase adostu baten beharraz aritu gara.

Zapaldutako herria da gurea, eta bertoko hezkuntza-sistemen ereduaren azterketan zapaldutako nazioa izatearen ondorioak aztertu ditugu. Baita neoliberalismoaren eta patriarkatuaren zerbitzura dauden hezkuntza-sistemak izateak dituen ondorioak ere. Euskal kultur transmisioan etena ematen ari da, euskalduntzen ez duten hezkuntza-sistemak dauzkagu, haurren kulturatik urrun daudenak eta garaiko erronka

nagusiekiko (Trantsizio ekologikoa-rena kasu) erantzukidetasunik ez dutenak. Diagnostikoaren ondorioek, horrela, sistema agortu eta zaharkituak dauzkagula baieztatu dute. Menperakuntza askotarikoa birproduzitzen duten hezkuntza-sistema segregatzaileak dauzkagula.

Hezkuntzaren xedea, bizitza osoan, esparru denetan, garapen kolektibo zein indibidual integrala bermatzea dela ulertzen dugu, bai euskal herri-tarron beharrak asetzeari, zein gure herriaren garapenerako bitartekoa izatea, baina egungo hezkuntza-sistemek ez dute hori bermatzeko izaera ez ahalmenik. Sorturen ustez, Euskal Publikotasuna da horren erantzuna: burujabea, feminista, euskalduna, inklusiboa, komunitarioa, deszentralizatua eta neoliberalismoaren logikatik at kokatuko den hezkuntza-sistema.

Sortuk argi du, ikastolen gaitasun autoeratzailerik komunitarioa eta eskola publikoaren sen berdinazalea batzeko gai bagara, baldintza objek-

tibo onak ditugula Euskal Herriaren beharrianetara egokituko den hezkuntza-sistema pentsatu eta egikaritzeko.

Norabide horretan, soilik administrazioarena eta goitik beherako eredu publikoa beharrean, administrazioarena eta komunitatearena izango den publikotasun berria da planteatzen duguna. Gobernantza eredu berriaren eta demokrazia zuzenaren aldeko apustua egitea, besteak beste.

Baina burujabetza behar du horrek, geure herriaren behar eta nahien arabera hezkuntza (ere) antolatze-ko ahalmena izatea. Horregatik, eskutik beharko dute joan hezkuntzarako euskal publikotasunaren eraikuntzak eta Euskal Estatuaren eraikuntzak.

Euskal Herriaren garapen kultural, sozial, ekologiko eta ekonomiko justuaren bultzatzaile eta erantzule izango den komunitatea behar dugu, heziketa prozesuen erantzule izango dena.



Herri konpromisoa eskatzen du horrek, eta denetarik eragile, erakunde eta heziguneen lankidetzat. Beraz, bizitzarako eta komunitaterako komunitatean hezteko ardura kolektiboa behar dugu. Hezkuntza ez delako eskola edo eremu formalera mugatzen den jarduerat, jada zenbait herritan garatzen ari den Herri Hezitzaileen filosofia erakusten duen gisan.

Hezkuntza euskaldun, inklusibo, feminista eta nazionalerantz, baina, trantsizioa egin behar da, behetik gora, gaurdanik biharko eredu eraikitzen, erakundeekin batera ala erakundeei bultzatuta eta herri bulkada sendoa gorpuztuz. Horretarako hainbat proiektu daude martxan eta hainbat diralana erako ildoak: herri hezi-

Trantsizioa egin behar da, behetik gora, gaurdanik biharko eredu eraikitzen

tzaileen mugimendua gorpuztea, heziguneen autonomia, ikasle euskaldun eleaniztunak hezteko ikasteredu orokortua, hezkidetzat eta pedagogia feminista, inklusiorako neurriak, euskal curriculumat-herri curriculumat, hezitzaileen etengabeko formazioa, ebaluazio hezitzailea, parte hartzea, laiktasuna... Eta Hezkuntza-mahaiak osatzea herri zein auzoetan, hezkuntza zein herri eragile ezberdinen eta udalaren parte hartzeaz ahal den toki guztietan.

Proposamena praktikara

EH Bilduren hezkuntza lege egitasmoa

Instituzioek ere zeregin propioak dauzkate, eta ezker independentismoari dagokio, hezkuntzarako burujabetza eta legedi propioa aldarrikatzearekin batera, trantsiziorako eskaintza politikoa egitea.

Hor kokatzen da EH Bilduk egin duen "Hezkuntza trantsiziorako proposamena". Bertan, ezker independentismoaren hezkuntzarako helburu estrategikoa eguneratzearekin batera, zehazki Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan leudeken aukerak probestu asmoz, proposamen egingarria aurkeztu du, hezkuntza legearen eztabaida aurreikusia dagoela aintzat hartuz. Hezigune deituriko Euskal Hezkuntza sistema publiko bateratua proposatu du EH Bilduk lau oinarriren gainean: egungo sare ezberdinetako ikastetxeen bategitea, sistemaren konfigurazio berri batean eta deszentralizazioa oinarri izanik; Iraultza pedagogikoa; Euskalduntzean jauzia, eta BPGren %6 bideratzea hezkuntzara.

Covid 19ak nabarmen utzi du hezkuntzan (besteak beste) egoeraren larritasuna. Prospekzioak are larriagoak dira, gainera: jaiotze-tasaren jaitsiera, migrazio fluxu berriak, digitalizazioa, autoritarismo eta zentralizazio joera bortitzak eta bizi izan dugun pandemiaren edo okerragoen erreakzioak tarteko. Eta egoera egiturazkoa da. Beraz, ez da nahikoa

hobekuntza edota aldaketa partzialak egitearekin. Egiturazko eraldaketa da behar duguna, eta norabide horretan kokatu behar ditugu gure ahalegin eta proposamenak. EHB-k, egoeraren azterketatik, nazio egitasmo integral batean uztartuko den hezkuntza trantsiziorako eskaintza politikoa egin du.

Aipatzekoa da, baita ere, Eusko Ikaskuntzak, XXI. mendeko Euskal Herriak behar duen hezkuntza-eredu zein sistemaz herri eztabaida plazaratu duela, nazio ikuspegitik, herritarren parte hartzea hauspotuz eta nazio akordioa jarriaz ipar bezala. Irailaren 11ko 100 zubigileen mintegiaren inpaktua handia izan da norabide horretan, espektatiba eta ilusio handia sortuz, eta urriaren 22-23an egin den sinposiuma horren jarraipena izan da. Martxan dago beraz euskal herritarrok hezkuntzaz gogoeta partekatua egiteko prozesu nazionala ere.

Erlojua martxan jarri da, eta ezker independentismoak hezkuntzarako helburu estrategikoa norabidea elikatzeke eta eraldaketarako baldintza eta agertoki berriak sortzeko asmoz, trantsizio adostu baterako ekarpena egin du. Izan ere, besteak beste horretarako prestatu gara urteotan.

Aurreko ziklo politikoan gai izan da gure herria, herrigintza lan izugarria eginez, erronka handiak aurrera ateratzeko. Jauzia emateko baldintzak eta energia badaude egon orain ere gure herrian. Baina energia horiek gure arteko lehian xahutu ala elkarlanean gehitu, hori da erabaki behar duguna. Jauzi hori soilik herri bezala eta indarrak batuz eman ahal dugu, konpromiso historiko berriak hartuz eta hezkuntza akordioa aldarrikatuko duen herri bulkada sendo bat gorpuztuz.

Euskal hezkuntza feminista, komunitario eta burujaberantz, Sare bakarreko Euskal Hezkuntza-sistema publiko baten inguruko adostasun soziala eraikitzeke unea da.

Azken hilabeteetakoak

Ekimenak, mobilizazioak, eragileak, instituzioak...

Euskalgintza

EKAINAK 17

BAXOA EUSKARAZ

Baionako Bernat Etxepare lizeoko 40 bat ikaslek euskaraz erantzun zuten baxo azterketako filosofiako proba Frantziar Estatuak euskaren aurrean duen jarrera salatzeko.

EKAINAK 20

BATUZ ALDATU

Hizkuntza politiketan eragiteko adostasun soziala ardatz duen «Batuz aldatu» ekimena bultzatu du Euskalgintzaren Kontseiluak eta Euskal Herri osoko ehun eragile sozialekin dokumentu bat adostuz.

UZTAILAK 1

AZTERKETAK EUSKARAZ

Donapaleuko Amikuzeko kolegioko ekainaren 29tik burututako okupazioari amaiera eman zitzaion mila bostehun pertsonatik gora bildu zuen manifestazio batekin. Seaskako ikasleei euskaraz osoki ikasteko eskubidea urratzen zaiela salatu zuten eta brebeta eta baxoa euskaraz pasatzeko eskubidea aldarrikatu ere.

UZTAILAK 2-4

EUSKAL HERRIA ZUZENEAN

Irisarrin ospatu den Euskal Herria Zuzenean festivalaren 25. edizioa. Asteburuan zehar Ipar eta Hego Euskal Herriko 9.000 lagun bildu eta 600 laguntzailek parte hartu dute.

IRAILAK 22

TXILLARDEGI GOGOETA GUNEA

TM eLab Euskal Herrigintza laborategiak hizkuntz politikaz eta glotopolitikaz aritzeko Txillardegiko Gogoeta Gunea jarri du abian.

Hezkuntza

URRIAK 7

EUSKAL KULTURA BULTZATZEKO HITZARMENA

EHUK, Deustuko Unibertsitateak, Mondragon Unibertsitateak, Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nafarroako Unibertsitateak, Urruneko Unibertsitate Nazionalak eta Paueko eta Aturrialdeko Unibertsitateak, Eusko Ikaskuntzarekin hitzarmen berri bat sinatu zuten euskal kultura eta hizkuntza bultzatzeko.

AZAROAK 6

EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Euskal Eskola Publikoaz Harro (EEPH) plataformak deitutako manifestazioan, hezkuntza komunitateko milaka pertsona elkartu ziren Bilboko Hezkuntzako Ordezkaritzaren aurrean euskal eskola publikoaren alde.

AZAROAK 10-11

EZ GAUDE KONFORME

Ernai gazte antolakundeak Gasteizko campusean burutu ditu Jardunaldi Nazionalak, eta ertz askotatik hausnartu dute hezkuntza-

ren, burujabetzaren eta gazte problematiken inguruan. Besteak beste, Euneiz unibertsitate pribatuaren proiektua, gazteen buru osasuna eta gazteen parte-hartzea politikan izan dituzte mintzagai. 300 bat gaztek parte hartu dute jardunaldietan eta mobilizazio jendetsu batekin eman diete bukaera.



Migrazioak eta arrazakeria

ABUZTUAK 10

MIGRAZIO POLITIKA HILTZAILEAK

Irungo Harrera Sareak deituta, ehunka lagunek Bidasoan ito den pertsonaren heriotza salatzen elkarretaratzea egin dute Irunen. Europako migrazio politikak aldatzea eta migratzaileentzako bide seguruak eta harrera duinak eskatu dituzte.

ABUZTUAK 21

MAREA HORIA

Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformak Plentziako eta Gorlizko hondartzak lotu dituzte migrante eta errefuxiatuen eskubideen aldeko martxa batekin.



URRIAK 13

EUSKAL HERRIA, HARRERA HERRIA EDO HILERRIA?

La Cimade-k, Etorkinekin-ek eta Irungo Harrera Sareak mobilizazioa egin dute Donibane Lohizuneko tren geltokiaren aurrean. Trenak harrapaturik Ziburun hil diren hiru aljeriarrak gogoan, migranteentzako bide seguruak irekitzeko erakundeen aldetik engaiamendu zehatzak aldarrikatu dituzte. amendu zehatzak aldarrikatu dituzte.

Lan eta bizi-baldintzak

EKAINA

2 LAN ISTRIPUEN SALAKETA

ELA, LAB, ESK, Steilas, CGT, Hiru eta ENHE sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte ekainean zehar, lan istripuetan hil diren langileen heriotzak salatzen. Hala, Oiarzango Lanbarren industrialdean eta Iruñeko Garraio Zuzendaritzaren aurrean bi garraio-larien heriotzak salatu dituzte.

EKAINAK 29

LAN, PENTSIO ETA BIZITZA DUINAK ALDARRIKATZEA EZ DA DELITUA

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta osatzen duten eragileek elkarretaratzea egin dute Bilboko epaitegien aurrean, elkartasuna adierazteko iazko urtarrilaren 30eko greba orokorrean jasotako salaketa baten ondorioz epaitua izan den Ermuko gazte bati.

UZTAILA

5 LAN ISTRIPUEN SALAKETA

Sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte uztailan zehar, lan istripuetan hil diren 5 langileen heriotzak salatzen. Durango, Muxika, Getaria, Gernika eta Elorrioren protesta ekimenak burutuz.

UZTAILAK 7

HERRIAN BIZI, EZ ESPEKULATU

Alda mugimenduko kideek Urruñako Euskal Elkargoaren egoitza eta Poplids etxebizitza turistikoak alokatzen dituen enpresaren artean dagoen bidea kanpin dendekin moztu dute. Alokairu turistikoaren kopurua abiadura handian igotzen ari da, urte osoak txikituz. Erakunde publikoari konpentsazio politika abiatu dezan eskatu diote ekintza honen bitartez.

UZTAILAK 12

PENSIONISTEN MUGIMENDUA

Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimendua deituta, kalera atera dira berriro ere milaka lagun Bilbon, Donostian eta Iruñean. UGT, CCOO, patronala eta Gobernu espainolaren artean sinatu berri den akordioaren gabeziak eta ekarriko dituen murrizketak gaitzetsi dituzte.



UZTAILAK 5

5 LAN ISTRIPUEN SALAKETA

Donostia eta Bilbon Eusko Gobernuak dituen ordezkartzen aurrean eta Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean protesta ekimenak burutu dituzte euskal sindikatuek abuztuan zehar lan istripuetan hil diren 5 langileen heriotzak salatzen.

ABUZTUAK 25-29

IRAULTZA TXIKIAK

Herri mugimenduen bilgune izan da Iraultza Txikien Akañada bost egunez, Arteagako Basoa etxean. Hamaika hitzaldi, tailer eta mahai inguru egin dituzte, LGTBIQ+ kolektiboaz, mugimendu feministaz eta ekonomia sozial eraldatzaileaz, krisi ekologikoaren ondoriozko mehatxu eta erronkez, euskalgintzaz, espetze ereduaz, elikadura burujabetzaz eta abar luze batez gogoetatzeko.

IRAILA

4 LAN ISTRIPUEN SALAKETA

Sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte irailean zehar, lan istripuetan hil diren 4 langileen heriotzak salatzen. Protesta ekimenak Gasteizen eta Nafarroako Gobernuaren aurrean burutu ziren.



URRIA

3 LAN ISTRIPUEN SALAKETA

Sindikatuek elkarretaratzeak egin dituzte urrian zehar, lan istripuetan hil diren 3 langileen heriotzak salatzen. Ondarroa, Eltziego eta Amurrioren burutu ziren protesta ekimenak.

URRIAK 5

GORA LANGILEON BORROKA

Tubacex enpresan lan gatazkari amaiera eman dion akordioa sinatu dute. Ia zortzi hilabete iraun duen gatazkak, Laudioko eta Amurrioko herritarrena ez ezik, Aiaraldea eskualde osoaren babesa ere jaso dute greba mugagabearen egon diren langileek.

URRIAK 16

ESKUBIDE SOZIALEN KARTA

Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak asanblada burutu zuen Gasteizen. Eraldaketa soziala eta burujabetzaren aldeko subjektuon artean adostasunak eraberritu eta agenda sozial partekatu eta burujabetza eraikitzea, eta lan leerro berriak martxan jartzea zuen helburu.

URRIAK 19

EZKUTU SOZIALA

EH Bilduk akordioa lortu du Espainiako Kongresuko PSOE eta Podemosekin, pandemia garaian etxebizitzari eta oinarritzako hornikuntzei buruz harturiko neurriak beharrezkoa den bitartean mantentzeko.

Nazio eraikuntza eta Prozesu Independentista

EKAINAK 19

NAFARROA BERRIZ ALTXA

Iraganeko eta etorkizuneko subiranotasuna aldarrikatzeko, bost mila inguruko lagunek hartu zuten parte Nafarroa Berriz Altxak Iruñean deitutako manifestazioan, "Altxa Nafarroa! Soberanía es libertad" lelopean.



EKAINAK 26

GU ERE BAI

"Gu ere bai!" dinamikak deituta, Euskal Selekzioak nazioartean lehia-tzeko eskubidea tinko eta sendo aldarrikatu zuten ehunak euskal herritarrek.

UZTAILAK 3

HAMAIIKA GARA

"Erreferendumen alde" lelopean eta erabakitzeko eskubiderik gabeko estatus politikorik ez duela onartuko adierazteko, Gure Esku-k bul-tzatutako Hamaika Gara ekimenak milaka lagun bildu zituen Bilbon.



UZTAILAK 14

INDEPENDENTZIA ALDARRI

Uztailaren 14an, frantziarren festa eguna ospatzen den egunean, "Hau ez da Frantzia ezta Espainia ere" lelopean eta independentziaren aldeko manifestazioa egin zuten Donibane Lohizunen.

UZTAILAK 21

ALKATEEN MUGIMENDUARI OMENALDIA

1976ko Alkateen Mugimenduaren 45. urteurrenean, EH Bilduko eta EAJko 70 alkatek bat egin dute Bergaran antolatutako ekitaldian, mugimenduaren aldarriek oraindik indarrean jarraitzen dutela azpimarratzeko.

ABUZTUAK 14

BURUJABETZAK BERRESKURATU

Ehunka lagunek hartu dute parte Sortuk Donostian deitutako manifestazioan, independentzia eta sozialismoarekin batera, feminismoaren eta euskararen alde eginez.

URRIAK 8

ITZALALDIA

Katalunia eta Galiziako Llotsa del Mar-eko indar independentistekin batera, EH bilduk deituta, Euskal Herrian argindarraren itzalaldia egin da. Oligopolio elektrikoaren lapurreta salatzeke eta burujabetza aldarrikatzeko abiatu dute independentistek ekimen hau.

URRIAK 12

EUSKAL ERREPUBLIKAREN ALDE

Ernai gazte antolakundeak Hego Euskal Herriko hiriburuetan lau martxa antolatu ditu urriaren 12aren harira, bestelako Euskal Herria posible dela eta egun honetan ez dagoela ezer ospatzeko aldarikatzeko.

URRIAK 16

NAFARROA XXI

Nafarroako Foru Hobekuntzaren 40. urteurrenaren karira, Nafarroa XXI plataforma aurkeztu zen Iruñean. Egungo zein etorkizuneko bide politikoaren inguruko eztabaida zabaltzea da euren asmoa.

URRIAK 19

EUROPAKO CAUCUS-AREN INIZIATIBA

EH Bildu eta EAJ barnebiltzen dituen Self-Determination Caucus-ak Europar Batasunak estatutik gabeko nazioentzako Argitasun Lege bat, Quebec-en gauzatu zenaren antzera, azter dezala iniziatiba aurkeztu du. Europako Etorkizunari Buruzko

Konferentziak lehen osoko bilkura ekainaren 16an egin zuen Caucusak Estrasburgon.

Feminismoa

EKAINAK 28

EUSKAL LGTBIQ+ BEHATOKIA

Aldarte, AMPGYL, Bizigay, Errespetuz, Gaylespol, Gehitu, Izanez, LGTBerri eta Naizen elkartek Euskal LGTBI+ Behatokia aurkeztu dute. Gorroto delitu eta diskurtsoak ekiditea eta salatzea eta berdintasun erreala eta eraginkorra sustatzea ditu helburu. LGTBI+ Euskal Lege Integralen proposamenaren zirriborroa idazten ari dira, ondoren Gasteizko Parlamentuan eztabaidatua eta onartua izan dadin.

EKAINAK 28

LGTBIQ NAZIOARTEKO EGUNA

Milaka herritar atera dira kalera Hego Euskal Herriko hiriburuetan sistema heteropatriarkalaren bortizkeria salatzeke.



UZTAILAK 9

ERASO MATXISTARIK EZ

Murchanten gertatutako erailketa matxista salatzeke, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak deituta, mobilizazioak burutu dira Hego Euskal Herriko hiriburu eta herrietan.

UZTAILAK 17

TORTURA SEXISTA SALATUZ

Emakume talde batek performance ekintza bat burutu du Bilboko Gobernu Zibilararen ondoan, egun hauetan 13/13 auzian Naia Zuriarrainek eta Saioa Agirrek emandako tortura testigantzak salatzeke eta sistemaren "mana-da"ren aurrean dagoen isiltasuna apurtzeko.

ABUZTUAK 14

NESKA* GAZTEON TOPAKETAK

“Non nor gara, borrokan. Astindu, mugitu, saretu” lelopean, Atarrabian burutu dituzte topaketak nafar neska* gazteek.

URRIAK 13, 14

ERASO MATXISTARIK EZ

Gasteizeko eraiketa matxista salatzeko, Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxak deituta, mobilizazioak burutu dira Hego Euskal Herriko hiriburu eta herrietan.

URRIAK 9, 10

MUGIMENDUAN GAUDE, LURRIKARA GARA

Euskal Herriko neska* gazteen baterajotzea izan da Elizondon. Bertan eztabaidak, tailerrak, hitzaldiak eta aisialdia uztartu dituzte bertaratu-tako 600 neskek.

**Ekologia**

EKAINAK 13

BASO BIZIAK

“Baso Biziak” izeneko plataforma Diman aurkezpen agerraldia egin ondoren eukalipto batzuk moztu zituzten. Izan ere, Baso Biziak-ek lege eukalipto landaketak debekatzeko eta bertako basoen alde apustu egiteko eskatzen du.



EKAINAK 23

LURRA LABORARIENTZAT

ELB-k eta Lurzaindiak Laborantzarako lurren espekulazioa

salatu dute Arbonan. Hiru milioi eurotan salgai den hamabost hektareako lurra okupatu zuten laborariek aterabide bat lortu bitartean.

IRAILAK 9

ARBONAKO GARAIPENA

ELBk eta Lurzaindiak okupatuak ziren lurren erosleak atzera egin zuela jakinarazi zuten.

URRIAK 23

ARABA BIZIRIK

